

Alexander Mihura

**ANDREDENA
MARIAREN
IMITAZIONEA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Andredena Mariaren imitazioea*, Alexander
Mihura. Piarres Fauvet, 1778

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00719.htm>

**ANDREDENA MARIAREN
IMITAZIONEA**

**Jesus-Kristoren Imitazionearen
gañean moldatua**

LEHENBIZIKO LIBURUA

Zeñetan konsideratuko baititugu
Birjina guziz Sainduaren bizia eta berthuteak
konzebitua izan zenetik,
gure Salbatzaillea Betheleemgo hirian
mundurat eman zuen arterañoan

LEHENBIZIKO KAPITULUA

Birjina Sainduaren Berthutien Imitazioneaz

Dohatsubak dire irakatsi diotzotedan bidetarik apartatzen ez direnak! Dohatxuba da, ene etsenpluez erraten diodana; enzuten duena.

Elizak Mariaren mihian hitz hauk ematen dituenean, gonbidatzen gaitu Sainduen Erregiña hunek lurraren gañean eraman duen konduitzaz eztudio baten egiterat, eta haren baitan amiratzten dugunaren imitatzerat.

Eta egiaz dohatsuba da Maria imitatzen duenean, imitatzen baita Jesus; berthute guzien Erregela eta lehen modela.

Birjina hunen bizia guzienezako lezione bat da, hartan ikasten da zer moldez behar den ibilli fortuna edo alde edo kontra denean, othoitzean eta lanean, ohorietan eta beheramenduetan.

Nihoizere ez gare helduko hark bere akzioei iratxagitzen zioten perfekzione hartarat. Hartarik guzien apartatzen dena, da perfetena.

O! zuek beraz Maria zerbitzatzu duzuenak, nahi baduzue model paregabe haren arabera bizi, ahal bezanbatean gogoan erabilatzue haren fedearen bizitasuna, obedienziaren lehia lasterrek, humiltasunaren beheramendua, haren leialtasunaren griñak eta atenezionak, xedien garbitasuna, haren amodioaren su lamak.

Ez da zuen artean nihor zeruko laguntza errekeritzu duzuelarik, berthute diferent horien praktikan haren etsenpluba segi ez dezazuekenik.

Imitazione hura gabe, hotza, flakoa izanen da hari ekharriko diozuen amodioa, eta ez duzue iduriki beharko haren protekzionatearen eta arartekotasunaren efektu berezirik.

Hala da, egun guzuez erraten ditutzue haren ohoretan othoitzak; hari beregainki konsekratuak diren zenbait konfardietan zarete horiek ekharriko dute zuenzat salbamenduzko grazien galdeitera.

Ordean horien guzien buruban zuen deboziona ez badoa behinere hura imitatzerakoan, zuen deboziona ez zaituzte salbatuko.

Filiztinek eskuetan izatu zuten Jaunaren arkha; aberatstu ere zuten bere dohañez: guzia-

rekin etzen hekientzat benedizionalezko ithurburu bat izatu, zeren bethi maitatzen baitzituzten bere idolak.

O berthutien Erregiña! ez da bada, zuzen maite bazaitugu, zuretzat egin dezagun mundu beher huntan izan ahaldetzakegun adiskidientzat egiten duguna? Ahalaz hekien iduriaren meneko egiten gare, hartzen ditugu hekien inklinazio-neak. Pareza horrek dakarke bihotzen batasuna. Elkarren iduririk ez denean; ez da adiskidetasunik.

Nola hain humilla, hain garbiya, Jinkoaren intrezenzat hain suharra, haren manuetarat hain eroria den zure bihotza, bat egin othe daite, Jinkoaren loriarentzat zelo gabe, haren nahientzat sumisione gabe den bihotz supher, eta plazeren billa dabillan batekin?

Maite banauzue, erraten darokuzu, imita nazazue nik Jesus egin dudan bezala. Ene umeak izateko, besti zaiteste zuen amaren izpiritubaz.

Mariaren umien izpiritubak behar du izan, Amarenak bezala, karitatezko, bakezko, mortifikazionezko, eta Jinkoaren beldur eta amodiozko izpiritu bat. Birjina Sainduba! hemendik harat

beraz zure alderako deboziona, guzien gañetik erakarriko nau, zure berthutien imitatzera ezin bihurtzeko hamaia, eta errespektu perfektuak. Ezin emanen daroztuz zuretzat dudako Amodioaren seña handiak.

II. KAPITULUA

Nola behar dugun prezatu Saindutzen gaituen Grazia

Maria bere izatearen lehen mementetik begiratua izatu da bekatu oriyinaletik: erran nahi da konzebituba eta formatuba izatu dela Jinkoaren grazian eta adiskidetasunean.

Guziak mundu huntan sartzen garenean Jinkoaren hasarreduraren biktima doloragarriak gare; Maria xoilla haren amodioaz aberatstuba, han sarthu da, haren graziaren obra mirakulluzko bat bezala.

Jinkoak etzuen nahi bere egoitza egin behar zuen tenpluba izan zedin batere lizundua. Semearen ohoreari bazaukon Ama mement batez ere etzedin izan debrubaren gathetan.

Zer estimu Mariak etzuen egin izatu fagore hautetsi hortaz? Lehenago, Salomoni zuhurtziaren dohaña bezala, fagore hori ditzaion, on eta ontasun guzien ithurriya. Jinkoa hartaz yabetu

zen, izaten hasi zenekotzat; eta hori, zen haren-
zat lurreko khoroa baño zerbait gehiago.

Arima kristaba bataioan izatu duzu Mariak
bere konzepzioneeran errezibitu zuen grazia Sain-
dutzen duen hura.

Grazia haren medioz ardietsten duzu Jinkoa
zure aita, Jesu-Kristo zure anaia deitzeko zuzena.
Billakatzen zare Jinkoaren primu, eta Jesu-Kristo-
ren primu lagun ezleyituba ere zaitzu zeruko
erresuma.

Orai ungi sentitzen othe duzu pribilio lorioz
horren goratasun guzia? Ordean denbora berean
konprenitzen othe duzu iratxakitzen darotzun
eginbidearen hedadura guzia?

Helas! Giristiñotasunaren ahalkeria handitan
behar dugu aithortu Kristaben artean gutiak
direla hortarat pensatzen dutenak; are gutiogo-
ak oraño, bere obren Saindutasunaz bere gora-
tasunaren sustengatzeko traillaitzen direnak.

Guri gutiak dire inozenziaren soin preziatu
hura bere xuritasunarekin begiratzeko zenbait
lan eta nekhe bere burubei eman nahi diotenak.

Buruiupe, banaloria bat ematen darokute
munduko abantaillek; eta zoramendurik estra-

nioenaz gure izpirituetan azken herrunka ematen diogu gure estimuba baxharrik merezitzen duen graziari.

lende handiek ez dute nahi bere ethorkiari eta leiñubari laidorik iratxaki, eta gu ez gare beldur ethorki guziz ispiritual eta Jinkozko bat abreen pareko bizitze batez desohora dezagun.

Irritsekin bagabiltza lurreko ontasun eta premizen ondoan, eta negliatzen, erran behar bada arbuiatzen dugu zeruko ontasunen primeza eternala.

Arima eskergabe, bekhatuaren biktima dohakabeak, nor nahi zareten; Ah! ez detzatzuela zuen bihotzak sorhaio billaka orano deitzen zaituzten Jinkoaren bozaren alderat.

Bigarren bataio bat gelditzen zaitzue galdu duzuen graziaren kobratzeko. Hura da penitziarena. Hartarat hel egizue esperanzarekin eta zin ziñez: Zuen aita-zerukoak ez du deusere hanbat sekerarekin gutiziatzen nola zuei bere adiskidetasunaren bihurtzea. Laster egizue ordean, menturaz gero ez da muga izanen.

Birjina guziz garbia zarena, egizu guretzat othoitz, arren bethi gaudezen bekhatuak galara-

zi darozkigun ontasun preziatuen erreparatzeko hartu dugun gogo onean. Zure arartekotasunak ardietsiko daroku Jinkoaren adiskidetasunean osoki sartzeko grazia; eta hala Jesus zure semeaz lehora, laudatuko eta benedikatuko zaitugu gure salbamenduaren lthurburuba bezala.

III. KAPITULUA

Saindutzen gaituen Graziaren begiratzeko izan behar dugun arthaz

Maria zerezen Jinkoaren grazian konzebituba bekhatuaren narraiorik gabe, bekhaturat iaidurarik batere gabe; etzuen guk bezala beldurtu behar bekhatuan erortzea.

Halarik ere haren biziari hurbildik begiratu ondoan, erranen zen, guk bezanbat, are guk baño gehiago beldurtzeko zuela.

Bethi erne zagoen ber bihotzaren gañean kreaturak hartaz yabe ahal izatu balire bezala. Gardian zagoen bere hitz guzien gañean, bere mihiatz beldurtzeko izan balu bezala.

Inozenziaren pribilio guziekin konzebituba, bethi bizi izatu nahi zuen penitenzian eta gu, gure flakezia naturalaz baliatu nahi duten milla etsai enganioz eta lausengariez inguratubak; ez gaudezatzarriak, ez gare izitzen.

Ailhortzen dugu flakoak, ilhaunak gabela; bizkitartean Sendoenak eta trebienak eror arazi dituzten okasionei maiz paratzen gaizkote.

Graziaren trezora gutien uste dugunean hatas daiteken iarro mendre batetan darabillagu.

Zenbat etsai ez dabilza guri trezor hura arrapatu nahiz? Baditugu gure barnean, gutaz kanpoan, eta gure aldaketan.

Gure barnean, behinere ungi hesiak ez ditugun pasioneak: gutaz kanpoan ilhunbetako ispirituak. Gure aldaketan mundu gaixtagin bat.

Ungi hilla ez den mitxa baten pare, gure pasioneak bethi erna daitezke; eta oraño subapitx dezakete. Yondoni Paulo bat bezala hirugarren zerurañokoan alxatuak izan bagiñe ere, bethi behar dugu beldurtu lezearen solarik behe-renerat aurthigiak izatea.

Alferrik pausatuko gare gure sentimenduen kharraren gañean; erranen dugu zin zinezkoak dire gure gogo on eta erresoluzioneak: ez da enkontru edo okasione triste bat baizen behar gure galarazteko.

Keñada batek Dabiti goratu zioen Jinkoaren adiskidetasuna; Dalila batek Sanson bat periaraz dezake.

Ikusi izatu dire mortu Sainduetan harronak lurrerat etxatuak, pesiya eta xirimola guziei hanits urthez Buru egin ondoan.

Berthutearen bidean egun batek ez du berzeaz lhardetsten; eta arima bat Jinkoaren fagorien objeta izatu den ondoan; leialtasun eskasez oraño billaka daite erreprobazionezko objet bat.

Hartu dituen gogo onen gañean pausatzen delarik bere buruaren gañean asko atzarria ez dagoenak, ez du luzatuko hei falta egitea.

Maiz hasarretzen, eta baxaz bethea den itsaso baten gañean prekauzionerik hartu gabe ibilli nahi duenak; iduriki behar du goiz edo berant kosta ioko duela.

Dorphe da, aithortzen dut bizi guziaren iragatea bethi eta bethi atzarria egonik bere iainduren gañean, hei gerla egiteko; nihor ordean ez da Saindutu gudurik eta atzartasunik gabe.

Jinko handia! ene haragiarekin orha zazu zure beldurra. Izialdurak erne itxikiko nau; eta

ene tzartasunak gudu guzietarik garaitiar ilkitze-ko zoriona ardietsiko darot.

Egizu ungi konpreni dezadan zure adiskide eta ume bilakatzen gaituen grazia hura dela ene griña eta artha guziak galdeiten dituen ontasun baxharra haren galtzen xoillak merezi detzakela ene auhenak eta nigarrak.

Dohatsu eta milleran dohatsu izanen naiz, hura galtzeko hirriskutan emanen naizen baño lehenago; gaitz suerte guzien pairatzeko hartzen dudan deliberazioneari leial banaiz.

Trezor haren begiratzen yakiten badut ene ariman egonen zare. Argituko duzu hura zure zuhurtziaz, sustengatuko duzu zure bothereaz, gozatuko zure presenziaz, eman diotzotzu zure samurtasunaren señale bethi erekoak, zeroni izanen zaren haren saria eta golardoa denboran eta eternitatean.

IV. KAPITULUA

Grazian eta perfekzionean ainziñat gateko izan behar den arthaz

ZERBITZARIAK

Birjina Saindua, zure konzepzionearen lehen mementetik errezibitu izan zinduen graziaren bethetasuna. Etziñen ordean kontent ontasun balioz hartaz bakhean gozatzeaz, oraño zure bizi guzian artha izatu zinduen haren baliarazteko.

Graziak egun guziez geroago eta gehiago aberatsten zintuen. Ziñen, lur ungi landu baten pare, zeñetan hasirik mendrenak batenzat ehun ematen baitzituen.

Mariak aldazkak etxatu ditu palma-landareak bezala, alde guzietarat hek hedatu ditu eta aldazka hek grazia eta ohorea dakarkete.

MARIAK

Ene haurra nahi baduzu zure baitan baliarazi Jinkoaren adiskide, Jinkoaren ume: Izpiritu Sainduaren Tenplu, Jesusen anaia, eta primu lagun

billakarazten zaituen grazia hura; egiozu ihes munduari, onets zazu othoitzza, hurbil zaite husu Sakramenduetarat, zure estatuari dagozkon berthutien pratika besarka zazu.

Enzun zazu zure barnean mintzo zaitzun boza, eta zure buruba utzazu haren deihez eta inpreñuez erabilzerat. Zenbatenaz boza hura enzuten baita, hanbatenaz gehiago argitzen du.

Badire hanits, berthutearen bidetan zenbait denboraz ibilli ondoan, egin duten bidez content pausatzen direnak; graziak ordean behinere ez dio, ia, asko da.

Bertze batzuei hanits zaie: gaixtoago ez billakatzea, ez da hori asko. Prestu denak egun guziez behar du traillaatu hobeago billakatzen.

Zenbat kristau azken juiamenduan ez dire espantitubak izanen Jinkoaren justiziaren alderat bere burubak zorrez kargatuak ikusteaz, zeren ez diren progotxatu Saindu handiago billakatzeko zituzten errextasunez.

Berthutearen bidean ainziñat ez doana gibelat lerratzen da; irabazten ez denean, galtzen da.

Neurthuz nahi denean ibilli Jinkoaren zerbitzuan, hark neurtzen ditu bere ungi eginak haren

alderat bekaitz ez denarenzat frankoa eta libera-
la da mundu huntarik beretik.

Den gutiena munduko ontasunetarik izan
dezazun, bethi asko duzu. Ezin ordean behirene
sobra izan dezakezu graziaren ontasunetarik.
Bere nausiak kontuz eman diotzan ontasunak
baliarazten ez dituen sehiya, punituba izanen
da.

Erna zaite beraz, ene semea, zure kokumatik.
Errepara zuzu denbora galduba. Ez erran asko
zaitzula aita zerukoaren txean azken plazaren
izatea, hola mintzo denak hirrisku du, hanbatere
ez izateko.

ZERBITZARIAK

Maria! ararteko puxant eta kartsuba, zure
laguntzarekin batean santifikatu nahi dut Jinkoak
oso osoa haren maitatzen eta zerbitzatzen iraga-
teko eman darotan bizia. Eugizu merezi dezadan
loria hura, zeñetarat ezin hel bainaiteke grazi-
aren laguntzarekin ere, ene obren bidez baizen;
eta zeñaren handitasuna neurthua izanen baita
hekin egitean izatu dukedan kharraren gañean.

V. KAPITULUA

Goizdanik behar gaizkola Jinkoari eman

Ene alaba, beharriyak ernaturik adi zazu erraterat nohatzuna. Ahantz zatzu zure herriya eta zure burasoen etxea, zeruko erregea, Jinkoa bera orduan yabetuko da zure bihotzaz.

Mariak muga onez enzun izatu zuen bakhartasunerat deitzen zuen Jinkoaren boza. Haur haurretik utzi zuen bere burasoen etxea Tenpluban Jinkoari bere burubaren konsekratzeko.

Ez gophutzaren herbaltasuna, ez adiñaren samurtasuna, ez eta ere burasoenzako amodioa etziren gaiak izatu haren baratzeko.

Jinkoa baizen billatzen, hura baizen maite ez duen bihotzaren sakrifizioa berant ahal dezaken guziak, bihotz hura tristatzen du zeren luzatzen baitu haren zoiona.

Tenpluan sarthuba, Mariak izan ahal bezain perfetki bethetzen zituen bere adiñaren eta ahalen arabera karguz hartu zituen lanak eta enple-

gubak. Hei ematen etzioten denbora othoitzean eta meditazionean zaraman. Hala dispozionetan eman zen Jinkoak egin gogo ziotzan hanbat grazia hautetsiren errezibitzeko.

O zeruetako erregearen alaba loriosa! ala zure lehenbiziko urratsak haltoak eta nobleak baitire! Segituba izanen da zure etsenpluba. Zure ondotik Birjina osteak bozik konsekratuko zaizko erregien erregeari bere tenpluan.

Han Jinkoari bere gastetasunaz, bere bihotzez, diren eta dituzten guziez egiñan dioten emaitza eta ofreimendu hura, izanen dire haren majestate guzizkoari bihurtuba izan ahal dakio-ken homaia perfetena: ahituko ez diren benediz-ione batzuen ithurburuba, zeñetaz gaindirozki betheko baititu bere bizi guzian.

Oi nola enganioan diren, berthutea gasteta-sunarekin ezin konpun daiteke sinhetsarazi nahi luketenak.

Mariak eta Saindubek froga egin dute zein gozo den haur haurretik Yaunaren uztarri mai-tearen erabilzea.

Jinkoa, Jinko baten oñean itxikitzea othe da bada, oso osoa haren zerbitzatzeko emana izan

zaikun bizitze baten ondar tristeak baizen hari ezleyitzen ez diotzagunean?

Zer emaitza, zer sakrifizio egiñen diogu Jinkoari, haren zerbitzatzan hasteko; ez ahalik ez erresurtzarik gehiago munduan geldi dakiguken arterañoakoan luzatzen dugunean?

Beldurtzeko da Yaunaren uztarria ez dezagun bortxaz eta herrestan bezala ekhar, munduarenaz unhatuak izan ondoan bazien hari lotzen ez gaizkonean.

Erraten da Jinkoari emanen gaizkola geroxeago; helduko othe gare ordean idurikitzen dugun adin hartarat? Helzen bagiñe ere, ganbiatuko othe gare uste dugun bezain errexki?

Experientziaz ikusten dugu, adiñak presuna jakiñago egiten duela; zuhurrago eta prestuago billakatu gabe.

Yauna, Yauna, idek diezaguzu athea zioten Birjina zoro batzuek; berantegi ordean ethorri ziren: alferrik atheari yoka haritu zitzaizkon.

Dohatsu beraz adin guzietz kontu galdetuko darokun Juye soberano haren ainziñean agertzeko, goizdanik preparatzen dena. Jinkoari bere biziaren hastea eta primizia ematen ez dioenak,

behar du beldurtu Jinkoak ez dezan permeti haren punitzeko, laster ikuz dezan haren akhabanza.

Zenbat denbora o ene Jinkoa ez ditut eraman zu maitatu gabe! ezin konsola naiteke! Zerenzat ez naiz orai danik bizitzen hasten? Ene izpirituba eta bihotza, gogoetak eta amodioa zuretzat bai-zen ez litezke.

Ezkerrak darozkitzut zure miseriakordia handiarenzat. Utzi darotazu bizia zure ofensatzeko baizen hartaz baliatzen ez ninzen denboran. Zure graziaren laguntzarekin batean azken hatserañoan zerbitzatuko zaitut, hanbatenaz leialtasun gehiagorekin; zenbatenaz berant hasi izatu bainaiz.

VI. KAPITULUA

Oso osoak eta behin bethikotz behar gaizkola Jinkoari eman

ZERBITZARIAK

Birjina kartsuba ez xoilki goizdanik, bañan oraño erresalba eta aldarazionerik gabe eman ziñaizkon Jinkoari. Zure libertate osoaz sakrifizio bat egin ziñoen, haren nahiaz landan bertzen borondaterik ez izateko.

Mundu huntan ez zinduen nahi haren gogara egitea baizen bertze kontentamendurik; ez eta ere haren amorea gatik atsekin guzietarik zure buruba gabetzeaz landan bertze atsegiñik.

Behinere zure buruba gezurtatu gabe bethi ibilli izan ziñen Jinkoak irakatsi zarozkitzun bide-tan; egun bakoxean hetan ainziñat zionazen.

Zure etsenpluak kondemnatzen nau Jinkoa har eta utz nabillanean; bethi berbera da ene alderat; bethi eneganik merezi ditu leialtasun bera, amodio erresalba gabeko bera. Oi! nola ahalkatzen naizen ene biziteko maneraz!

MARIAK

Zertako, enen haurra, trikatu zare hain ungi hasi ondoan? Ez da bada egun Jinkoa lehen zen bezain nausi handi eta maitagarri bat? Ez ditutzu bada bethi harekin ariya berak? Denbora batez bertzean baño gutiago haren azpiko zare? Osoki harena izateko eginbidea ez da bada sasoin guzietan berdiña?

Adiñetan ainziñat zoazen eredura; emendatzen dire Jinkoaren ungi egiñak; heiekin batean behar dute emendan gan zure ezagutzak eta leialtasunak. Jinko xoillak zure bihotza egin izatu du, eta ez du egin izan baxharrik beretzat bai-zen; hark beraz behar du izan haren yabe baxharrira.

Ez darotzu erran prestamuz indazu zure bihotza; bañan eman diezadazu zure bihotza. Eman diozun ondoan zer zuzenduko berriz hari bihotz hura kendurik eramateko?

Mundubari sobra ohorr egiten diozu zure amodioaren zenbat parte ematen diozunean; eta Jinkoari laido guzietarik handiena; mundua bezalako parti da bat parrean ematen diozunean.

Gaitz guzietarik handiena litzaizukela, diozu, Jinkoaren adiskidien baltsako ez izatea; ordean Jinkoaren begietan zer da adiskide hotz, herbal eta laxo bat?

Jinkoari ez zaio sobra egiten duela den guzia, oso osoa zuri ematen zaitzunean; izan zaite beraz guzia harenzat. Harekin guziak edirenen ditutzu, guziak ematen badiotzotzu. Mundua eta munduko gauzak deusere ez dire, Jinkoa guzitzat daukanarenzat.

ZERBITZARIAK

Naizen bezalako ilhauna, graziarik puxante-naren beharretan naiz, Birjina Saindua; zure lezioez progotxatzeko, eta zure urrazen gañean ibilzeko.

Zure kharraren etsenpluaz suztatzen nauzun denboran, othoi neretzat galde diotzotzu behar ditudan graziak. Helaz? hanbat gora behera eta infidelitaten ondoan menturatuko othe naiz oraño Jesusi ene bihotzaren ofrendatzera? Bai, bai; haren hasarredurak ez daki bihotz zaurthu eta humiliatu bati; eta zure arartekotasunari kontra egiten.

Ama samur eta urrikalmenduz bethea, egin dietzadatzu ene Jinkoarekin bakheak. Oxala bada Jinko Salbatzaille hark hartarañoan ene bihotza bethe baleza bere graziez, non bihotz hark ez baitezake gehiago ezagut nausi on eta maite haren zerbitzuan ez partaiarik ez menaiamendurik; ez baleza gehiago izan harenzat baizen lehiari.

VII. KAPITULUA

Bakhartasunaren gozotasunez, eta abantaillez

ZERBITZARIAK

Birjina Sainduba! nonbait egun gozo eta atsegin egitekoak iragaten zintuen Tenpluban. Han deskanzuan eta aisiarat gustatzen zinduen Jinko-arekin behkoz bekho egotea: bertze deus etzinduen gogoan Jinkoaren prezencia baizen; haren handitasunak eta perfekzionak sesurik gabe kontenplazten ziñaraman denbora.

Guziz maitea, han guzia zurea zinduen; eta zu guzia harena ziñen. Munduak eskain ahal zietzatzuken gauzarik aberatsenak, ederrenak fitz bat; oraño zerbait gutiago ziren zure begietan.

MARIAK

Bai ene haurra, hala da: arima batek bakhartasunean, mundutik eta munduko ikuszaritarik urrundua denean; egun dohatsubak iragaten ditu. Ez da han Jinkoaz baizen okupatzen: lurra-

ren gañean harekin, hura xoil xoilla baizen ez balitz bezala.

Haren gogoa han ardura bilduba da bere Jinkoaren bozaren enzuteko; ezin deusek ere nahas dezake; maiz erratea laket duen hitz labur, ordean sarkor hautan; zu zare ene bihotzeko Jinkoa; edireten du bere aberatstasun, bere plazer, eta zorion guzia.

Espoz sakratua bezala bere maitearen itzalean yarriya, urrikalmendurekin gogoratzen ditu gizonak handi, izantsun billakatzeko yasan behar dituzten kexaguneak; ezin konpreni dezake nola hark maitatzen duenaz bertzerik maita ahal daiteken.

Ez da kantitzen lurraren gañean iragaten direnez. Maite duen hura da bethi izatu dena, bethi izanen dena; berdin Saindua, berdin maitagarria. Gogoeta hortan edireten du harenzat bethi berria den bozkario baten suieta.

Jaunak nahi diotzonean arima bati eman bere leziona Jinkozkoak; nahi zaioenean bihotzerat minzatu, badarama bakhartasunerat.

Galde diozozu, ene haurra, Sainduek zuten ispiritu bildu hura; erretretaren gustu hura.

Onhetsazu munduaren ganik urrunbizitza, eta ez zaitezela han ager premiaz baizen. Orduan ere egizu usoak bezala; arkhatik ilkiarazi zute-nean. Laster harat bihurtu izan zen: zeren arkhas kanpoan nihon ezin ediren baitzuen pausa lekhu-rik.

Munduari artharekin ihes egiten ez badiozu, berehala han laketuko zaitzu, eta han behin lak-hetuz geroz, ez duzu gehiago gusturik izanen Jinkozko gauzenzat.

Gantikoetako Esposa Jerusalemeko karriken erdian ibilli zen bere maitearen ondoan, eta ez zuen han aurkitu. Aithorazu nekhez ilki zarela munduko solasetarik, sartu ziñenean baño Jinko-aren begietan hobendungo izan gabe.

Bakhartasuna behar da maitatu, nahi denean publikoan trebeki eta beldurrik gabe agertu. Bakhartasunean ikazten dugu, nola behar garen munduaren artean minzatu.

Bititze gordea da inozenziaren begiratzeko moien gisakoena. Deusek ez du hala gizonaren berthutea ahitzen nola yendien konpania husuegiak.

Ezin munduko aire isuristatua har daite haren kutsu gaixtoa sentitu gabe. Ardura beraz zoaz baxharrik egotera; han aire garbi bat hatzarekin hartuko duzu.

Ermitau Sainduak aithortu dute nihoiz ere ez direla gaiago izatu Jinkoari lanotasun suerte batekin minzatzeko; munduko egiteko eta bilkuietarik urrunduak egon direnean baño.

Ene haurra, Jinkoak bere delizioak zurekin denean ditu; zureak ekar-atzu harekin izatean; eta nihon hura ez duzu hobeki edirenen, baxhartasunean baño. Han nihon baño errexkiago zure izpirituan soraraziko ditu, zure pena guziak gozatu, izialdurak pausatuko, dudak sunsiaraziko dituzten gogoreta batzuek; zeñek oraño irakatsiko baitarozkitzute gauza guzietan zuhurtziarekin ibilzeko bide segurak.

Hitz batez baxhartasunean zure bihotzari adiaraziko dio gozoz betheko duen boza ixil bat; haren bihotzak itxikiko darotzu. Haren adiskide maitiez baizen konprenitua ez den hizkuntza bat, eta zure ariman sigillatuko ditu egia batzu, zenen ezagutza ezin izan baitaiteke haren amodioaren efektu phuru bat baizen.

VIII. KAPITULUA

Garbitasunaz; nola behar dugun prezatu

Aingeruak Mariari adiarazi zioenean Jinkoaren ama billakatzera zioala; etzioen erran izan ea pribilio halto hura konpum ahal zaiteken egin izatu zuen Birjinitatezko botuarekin. Hargatik Mariak etzioen baimendua berehala eman.

Nahiago zuen Birjinitatearen Merezimenduz kreatura guzietz gorago igan; ezen ez handitasunez eta dignitatez hek ixitu.

Bañan ez, Maria! etzaitezela izi eta nahas: hanbat prezatzen duzun garbitasun hark berak, zure erraietararaut yautsaraziko du Brijina baten ganik baizen sorthu nahi ez duen Jinko hura.

Eta egiaz Mariak bere baimendua etzuen eman izatu aingeruaren hitzetarik yakin ondoan baizen, Jinko baten ama billakatzean, deusere etzuela bere garbitasunarenzat beldurzekorik izanen.

O berthute preziatua! zenbat etzaitugu behar onetsi, kreatura guzietarik garbienari iduritu zaioenaz geroz, Jinkoaren amatasunaren gañetik preferenzia eman behar zarotzula?

Zuk diszipulu maitenari merezitu diozu Jesusen adiskidetasuna. Ala dohatsuak baitire lurraren gañean zutaz berreginduak izatu diren arimak; eternitatean izanen dute bildotsari yarragitzeko zoriona.

Apostoluen Prinzeak pribilio guziz handiak izatu ditu. Ordean Jesusek azken afariyan bere diszipulu Birjina baizen, etzuen utzi bere golkoaren gañean pausatzerat. Jesusek Plarresi eman zioen bere elizaren artha, Joannisi utzi zioen bere amarena.

Garbitasunaren medioz lurraren gañean badakarkegu zeruan dohatsuek daramaten biziaren pareza. Berthute haren praktikak ardietsiten daroku aingueruek berek ez duten merezimendu bat.

O zuek berthute huni kontra egiten dioen biziyoari, barkha daiten erorkortasun bati bezala begiratzten diozuenak; orhoit zaitetzte biziyo guzien artean ez dela Jinkoak garratstasun

gehiagorekin punitu duenik, eta nekezago barkatu duenik.

Biziyo hunek urrun kentzen du Jinkoaren ispiritua, zeñari izkribu Sainduen arabera, ez baitzaio lakhet gizon haragizkoaren baitan egoitzaren egitea.

Biziyo hunek erorarazten du Itsumenduan. Daviti adulterioaren ondoan Profeta bat gan behar zaio bere hobenaren izigarritasuna Sentiarazterat, hartaz penitencia hari eginarazteko.

Biziyo hunek oztriñatzen, sohaiotzen du. Salomon hanbat urthez zuhurtziaren mirakulu bat izan zena, bere egunen ondarrerat zeren lohi billakatu zen Idolatre egiten da.

Gure Gorphutzak Ispiritu Sainduaren tenplu batzu dire. Lohikeria beraz Kristau baten baitan, da gaixtakerien gaixtakeria lekhu Sainduan.

Jesus Birjinen Esposa, amatzat Birjina bat berezi duzuna! indazu garbitasunarenzat amodio samur bat; eta hari kontra egiten dioen bizioarenzat higuinza handi bat, eta hinguinza guzie-tarik handiena.

Garbitasunaren berthutea gizonaren indar eta ahal guziez gorago da. Ezin bizi naite garbi,

grazia berezi bat gabe. Grazia hura galdeiten darotzut, Maria zure begietan hain agradagarria billakatu duen garbitasun haren medioz.

Egizu ene atsegin guzietarik handiena izan dadin, zure lege Sainduaren kontra diren plazerren garaitzea. Nere baitan pitx zazu presuna lohiei aldareatzen diotzotzuten khar bethierekoen beldurra.

Nere baitan iraungi zazu haragizko plazerren goztuba; eta indazu zeruko delizioen hirritsa. Begira nazazu debozionatearen etserzizio Sainduetarañokoan darraizkidan tentamendu nabarbenetarik; edo bederen nahi baduzu tentatua izan nadin; egizu o ene salbatzaillea leialtasun handienarekin gudukatzen naizelarik, balia nadin okasione hetaz zuri nere amodioaren froguen emateko.

IX. KAPITULUA

Garbitasunaren begiratzeko hartu behar diren prekauzioez

Maria bere conzepzionarioko graziaren ariaz, bizioaren asaldu guzien gerizean zelarik; nahasi izan zen gizon baten iduriaren azpian agertu zitzaion aingeru baten bistan.

Aingeu hark agur egiten dio. Berehala bere baitan gogoetan ematen da zer erran nahi duen agur hark. Harekin baxharrik eta lekhukorik gabe edireten da; hori bera asko da ikharra Saindu batez transitua izan dadinzat.

Seme batez erdiko zare, erraten dio aingue-ruak eta deithuko duzu hura Jesus. Nahasia izateko arrozoin berri bat Mariarenzat. Ez da dudan ematen aingeru hark adiarazten dioena gertha ahal daitekela; zeren Jinkoarenzat ez baita ezin eginik: xoilki nahi du yakin nola konplituko den misterioa.

Nolako zuhurtzia egiten duen galdean, deusere ez dio premia duenik baizen. Hemen errex

da ezagutzea garbitasunaz bere trezora egiten duen arima bat. Lore minbera? Gabitasunak beldurzen du hatsik mendrena, keñada bakhar batek, hitz xoil batek izitzen du.

Birjina batek berthute hunen balio guzia eza gutzen duenean, beldur ditu hura dañá dezaketen okasione urrunenak ere. Hitz launseguzkoak, eskainza honestak, inozentenak diruriten solhasak berak perillosak zaizko: doblatzen du bere atzarritasuna.

Ordean hanbat prekauzione behar direnaz geroz garbitasuna bere osotasun guzian begiratzeko; erran ahal othe daite hanits arima garbi lurraren gañean badirela? Nahi izateko liteke hanbat artha izan baledi berthute haren funtsaren nola itxuren eta idurien salbatzeko.

Zenbat yendenzat alferreria eta bizitze guri eta mañoz bat, irakurtze perillosak eta solhaz libroak ez dire erortzeko okasione batzu izatu?

Birjina kristaben artean, asko beldurrik gabe eta maizegi erauntsian egoten dire Aingerubak ez diren presunekin. Erraten balerautet biskitar-tean atzarriak daudezala ez lerratzeko; ihardets

niozokete debrua ere erne dagoela heien galarrazteko.

Neskatxa bat beregainki laudorioak maite dituenen ez da luzero indiferent izanen hekematen diotzanaren alderat. Garbitasunari ukitzen zaizkon gauzen gañean guzietz beldur behar da izan; zeren ez den asko beldur izaten.

Gure burubei nahi diotzotegu gerizatu onesten ditugun hurriskuak: hekem onesten ditugulako frogara, da, hekem gordetzeko dugun atenezionea. Guziak bustin beraz egiñak gare; gutaz izan ahal daite; bere herbertasunaz esperientzia doloragarri bat egin duten hanbat bertziez bezala.

Behar dugun arren pausatu graziaren lagunaren gañean, etzaitzu halaere zilheki hurrizkuari paratzea. Laguntzara hura ez da segura tentamenduan, hura billatu gabe edireten direnzentzat baiizen.

Hanits urthez garbitasunaren etsaiari garaitu baziñaizko ere, ez dezazula uste izan bethi garaitiar izanen zarella. Leialtasunekin ihes egiozute ispisitu gaixtoak alde guzietarik hedatuko darozkitzun arte eta segada egun orozkoei. Orduan

Jinkoak emanen darozkitzu indarrezko graziak, ustegabeko enkontru hetan ez erortzeko.

Birjina Saindua ardiets dietzadatzu garbitasunean bizitzeko hain baitezpadakoak diren nere buruaren beldur hura, ene sensuen mortifikazio-ne hura, ene urratsen xuxenzeko zuhurtzia hura. Ezin esparantza dezaket zu maite zaituztenen baltsako izanen naizela non ez dudan maitatzen guzien gañetik zure goratasunaren eta loriaren ithurburua izan den berthute eder hura, garbitasuna.

X. KAPITULUA

Egiazko handitasunaz

Ezin erran bezalako diferentzia bat bada munduaren araberrako eta graziak ematen dituen handitasunen artean. Ontasun murruek, yauregi superrek, sehien ostiek aditzerat ematen dute erregien handitasuna. Munduaren arbuioak, bekatuaren higuinzak, eta Jinkoaren amodioak presuna yuztuaren handitasuna markatzen dute.

Gizonaren loria egiazkoa, merezimendu bakharra, datza Jinkoaren beldurrean eta haren manuen begiratzean. Aingeruak Mariari erran zioen agur graziaz bethea Jauna da zurekin. Nola Birjina hartaz egin ahal othe zezaken bada laudorio ohoragarriagorik?

Aingerua Mariaren ganat egorria izatu zen denboran, Auguste eta Herodez tronua gañean ziren. Handien, puxanten, manifikoen izen azematen ziotzoten: ordean zer ziren, egiazko handitasunaz bakharririk zuzenki juiatzen duen Jinkoaren begietan?

Nazaretheko zoko batean gordea zagoen Birjina gabe bat hek baño infinitugi dineago zen laudoriorik handienez, handitasun egiazkoa ez da neurtzen gizonen opinione funtsgabien gañean, bañan bai bera baxharrik handia den Jinko batek hartaz egiten duen estimuaren gañean.

Zer dire bada munduan hanbat haro egin izatu duten gizon famatu hek, errelijioniak bertutien bidez formatzen dituen presunaia halto hekiekin parrean ematen direnean?

Ohore gehiago da pasionen zapatzea, populu-
luen nausi izatea baño. Nekhe gutiago da bertzien garaitzea, gure buruen baño; etzaio kristau egiazko bati behar begiratu inkontru xoil batean, egun baxhar batez handi den presuna bati bezala; bere bizi guzian da handi. Kontra egiten dioten traba guzian gañetik badoa; bere Jinkoaz gozatzeaz, haren baitan deskansatzeaz egiten du bere zoriona.

Othe da bada Jinkoaren zerbitzatzeaz eta harena izateaz goragoko ohorerik? Erregiñatzea da, haren zerbitzatzea. Iskribu Sainduak Abraha-
mez, Moisez, Davitez eta lurraren gañean izatu

diren gañerako gizon hautetsiez minzo zaizkiguan; deitzen ditu Jinkoaren zerbitzariak: kalitate xoil horrek bertze guziak zarratzen ditu, edo hobeki errateko gañerakoak deus ez dire horren aldean.

Hanbatenaz da Jinkoaren zerbitzarien kondizioa errege eta lurreko soberano guzien kondizioneaz goragoa, zenbatenaz Jinkoa alxatua baita errege eta soberanoez gañetik.

Munduaren nausi soberanoa! zuretzat eta baxharrik zuretzat egiña naiz. Zu ezagutu ondolan berzetarat heda ahal othe detzakegu gure homaiak. Zu ezagutu eta, nola ez dugu infinuski prezatuko zu zerbitzatzeko zaituztenen zorthea.

Zer ohore ez da gizona bezain erromez eta miseriatua den kreatura batenzat, zure zerbitzatzeko eta maitatzeko loria, eta zoionerat pretenia ahal izatea?

Egizu Jauna zure graziaz, ungi konpreni dezadan, bizitze gorde baten ilhunbetan zure nahien egiteko arthaduen; eta zu leialki zerbitzatzeko zaituen presuna batek, hanits gehiago egiten duela, mundu itsu eta zoro batek handitzat dauzkan guziak baño.

Egizu zure zerbitzuari iratxakia den ohoreak, goratasunak, loriak, inspira dietzatedan ene enplegu guzietan, ene lan eta obra guzietan; zerbitzatzen dudan nausiari dagozkon kharra eta lehiya.

XI. KAPITULUA

Aphalenzat direla Jinkoaren graziak

MARIAK

Ene haurra, Jinkoaren ganik grazia handien ardietsteko sekretu bat nahi darozut irakatsi. Hura da bethiere sinhetstian izatea ez ditutzula hek merezi. Jinkoak aphalei ematen diotzote bere dohañak eta graziak; bere burubaz gaindi egiña den bihotz baten, Jinkoak ez du edireten non pausa bere fagoreak.

ZERBITZARIAK

Sainduen erregiña! pontu horren gañean zure etsenpluak argi handiak dire guretzat. Jakiteko zein sentimendu aphalak zintuen zure burubaz; asko zaiku ikustea nola egin zinduen Aingeruak Jaunaren partez bisita bihurtu zarotzunean.

Adiarazi zarotzun Jinkoaren ama billakatzeko menean ziñela, eta ezin konpreni zinezaken nola

Jinkoak hautetsi zintuzken dinitate guziz gora hartarat zure alxatzeko.

Izate soberanoa zure erraietan ematen zen mement berean, zure buruba beheratzen zinduen, zure ezdeustasunean hondatzen ziñen. Zure goratasunari iratxakiak zirn titre ohorezko-
etarik, ez zinduen itxiki nahi Jaunaren sehi kualitate baizen.

Eva berriya, lehenbizikoaren ganik ungi diferente izatu zare. Ber urguilleriak hari galarazi ziotzan bere pribilioak; aphaltasuna izanda zurien ithurburuba.

Guziz bolheretsuak zure baitan mirakullu handienen egiteko, ez diote begiratu zure ethorkiaren distiadurari, eta gañerako abantail naturalei; bañan bai, zure aphaltasunaz zintuen sentimenduez.

Behar zen, Jinko bati infinituki agrada zakioen humiltasuna, azken beheramendurat jautsten zenaz geroz gizon egiten zenean. Bere amatzat hautatu behar zuen dinitate guzietarik gorena bere humiltasunaren ariaz gehienik merezitzen zuena.

MARIAK

Ene haurra, Jinkoaren begietan oraño gizonetan baño hobeki merezimendurik gehiena du, gutien duela uste duenak. Zer Jinkoak zeruan era lurraren gañean ikusten du atsegin eta konplazentziarekin? Arima humillak.

Noren gañerat hedatuko ditut ene begiak? Erraten du berak, baizik erromesaren eta aphaltzen denaren gañerat? Urrunzen da Jinkoa gora gan nahi dutenen gañik; eta hurbiltzen da beheratzen direnen ganat.

Graziaren ontasunez billuziak diren hanbat kristaben pobrezia heldu da heien urguilleriatik. Bere buruben ezagutzeko lana harbalezate, ezagutza hark heien baitan humiltasuna soraraz lezake; eta hark ardiets liotzoketen graziez senda lezake heien pobrezia.

Ene haurra, izan zaite zure burubaz billuzia eta hustuba, eta Jinkoak betheko zaitu bere dohañez. Aberats egin zaite, zure funts propiotik miseria eta erromesia phuruba baizen ez zarela aithorturik.

Aphal bazare Jinkoa zutaz baliatuko da bere loriaren emendatzeko. Bere ohorearen artha

fidatzen diote, hari hura goratu nahi ez diotenei; eta harekin batean hura erdizkatu nahi ez dutenei.

Jinkoaren ganik zenbait grazia izaten duzunean, humilki eta ezagutzarekin gogoan erabillazu, zein nausi ona behar duen izan Jinkoak; bere zerbitzarietarik azkenekoa, hanbat frankiarekin aberatsteko.

Ez diozozula zure burubari deus iratxak ez gozaten ditutzun ontasunetarik, ez egiten duzun ungitik. Noizeta ere haren graziei leialtasunik gehienarekin ihardetsten baitiozute; orhoitzaita ez zarela leial grazia beraren lagunzarekin baizen: eta Jinkoak zure leialtasuna saristatzen duenean ere; bere dohain propialei khoroa ematen diotela.

Bethi zurekin erabillatzu hirur sentimendu hauk: Jinkoa da guzia, eta ni deus ez naiz. Jinkoa da guzien yabe; eta nik primezazat ez dut miseria baizen. Jinkoak guziak egin detzake, eta nik haren lagunza gabe ez dut ahalik.

Orduan zure baitarik deus etzaren arren, deus ez duzun arren, deusen egiteko gai etzaren arren; bizkitartean Jinkoaren begietan zerbait

izanen zare, onetsiko duzuri bere fagorien ematea, eta zure etsaien gañetik garaitiyar ilkiaraztea.

XII. KAPITULUA

Egiazko handitasuna datzala bereziki, humiltasun giristinozkoan

Aingerua Mariari minzatu zitzayoenean baliatu izan zen hitzak, etziren antolatzen Birjina haren Ispirituan, bere buruaz zuben opinionearekin.

Haren arima truble edo nahasdura saildu batez arrapatua izan zen; iduri ere zuen beldurzen zela haren begietan iragaten zena; etzedin izan sensuen enganio edo Ispiritu gaixtoaren segada batbaizen.

Aingeruak adiarazten zioen emakume guzien artean benedikatua zela. Ustean baitzen, guzie-tarik azkenekoa zela; ezin konpreni zezaken nola ematen zitzaioen, gisa hortako laudorio bat; ezen aingeruak erraten ere zioen, hartareñokotan Yaunaren ainziñean grazia ediren zuela; non haren ama billazatzerat baitzioan, bere baimendua ematen bazuen.

Aldaratzen dioten goratasunaren bistan Maria apaltzen da; sobra dohatsu dauka bere buruba haren sehi kualitatearen ekhartzeaz. O! zuek ohore eta loria baten ondotik zabilzatenak Mariak irakatsiko darotzue non edireten den.

Funtsezko eta egiazko loria datza aphaltzean. Zuen artean ttipien dena, dio Jinkoak berak, da handiena. Loria hura funtsezkoena bezala, da orobat segurena. Nihork hartaz ez darotzu eskatimarik emanen; nihork ez darotzu hura goratuko.

Nihor baño xumeago billakatu nahiko duzunean, guziak baño handiago billakatuko zare; zeren zure baitarik deus ez zarela, deus ezin egin dezazuke ta seguratuba; seguranza hark beheratzen zaituelarik; alxatuko baitzaitu ontasun guzien ithurritzat ezagutuko duzun Jinkoaren ganat.

Orduan Jinkoaren botherearen gañean pausa ahal zaitetzke, hanbatenaz trebanzia eta esparanza gehiagorekin; zeren berak herbalen indarra izateaz plazer hartzen baitu.

Bertze alde oraño humiltasunak begiratuko zaitu urguilleriari eta gora gan nahiari darraizko

baxesia eta eta beheramendutarik. Zer da bethi eta guzien gañean laudatua izan nahi duen; handi izateko pasioneaz iretsiaden gizona baño ahalagorik?

Humiltasuna duzunean ez duzu konturik egiñen yenden erranez. Apostoluarekin batean erranen duzu, nitaz denaz bezanbatean ez dut axolarik yaia nazazuen; ez dut yuie bat baizen ezagutzen; eta hura, Jinkoa da.

Hark ezanziatasun batekin begiraraziko darotzu mundu beher huntako ohoriei; zeren heien distiaduraren artetik ikusiko baituzu heien funts-gabetasuna eta enganioa.

Humiltasunak erakarriko zaitu ez lagunarekin zure burubaren neurtzerat, bañan bai haren ohoratzerat; eta inbidiarik gabe, bere herrunkaren eta yendien estimubaren ariaz zutaz gorago alxatuba ikusterat.

Berthute guzien artean ez da batere humiltasunak bezala ispirituaren funts ona, eta arimaren trebeetasuna agertzen duenik. Bañan guzien gañetik hark egiñen zaitu, Jesus Jinko gizonaren iduriko.

Nihoiz ez da presuna handiago, ohoragarriago buruzagi sakratu haren imitazeko ahalak egiten dituenen baño: eta behinere ez gaizko hari hurbilduko, ahal ez bagare; eta beheramen-duak onetsten ez baditugu.

Jesus humilla zen, maite zuen beheramen-dua; zeren baitzakien, zenbat haren bidez ohoratzen zuen bere aita. Eta egiaz Jesusen beheramenduen denboran aita zerukoak adiarazi zuen, haren nahikara guzien objeta zela: aingeruek kantatu zuten, ohore eta loria Jinkoari zerurik gorenean.

Zeruetako erregiña hanbatenaz izatu zare alxatuba, zenbatenaz ahaldu nahi izatu bahituzu. Zure baitan egietan kausitzen da orakle hau, beheratzen dena, goratua izanen dela. Ardiets dietzakidatzu behar ditudan graziak nere baitan nausitua den supertasunaren funtsaren sunsiazteko.

Helas! orai arterañokoan ez ditut izatu humiltasunaren itxurak baizen; eta berthute hura ez dut eskarniatu, den bezain gaixtoa izan arren; superrak arbuiatzen dituen munduaren estimu-ba irabazteko baizen.

Izanaraz diezadazu humiltasun zin zinezko bat. Hark ene herbertasunaz segurutzen nabelarik, ekharriko nau guziak Jinkoarenzat egiterat, Jinkoaren ganik guzien idurikitzerat; guzietan, handitasun egiazkoaren ithurri xoilla den Jinkoaren estimuaren billatzerat.

XIII. KAPITULUA

Arima humil bat atzarri dagoela Jinkoaren begietan zer den, gizonei gordetzeko

Jaunak Mariari egorri izan zioen aingeruak, eman ziotzan laudoriorik handienak, adiarazi zioen Jinkoaren semearen ama billakatzen zela. Nihork ordean etzuen Mariaren ganik aditu, zer orduan Aingeruak erran izatu zioen.

Etzuten ikusi Mesiasen ama bezala kanpoan agertzen: emazteki arrunt eta komuneko bat izan balitz bezaa, yendien artean bizi zen.

Joseph bere esposari berari, zenbatere harenzat samurtasun baitzuen; zenbatere bere artean solhas husubak baitzituzten; etzitzaioen behinere hartaz minzatu. Gero ere ondoan gan izan zenean Elisabethen bisitatzera, ediren zuen misterioaz argituba; etzen ordean enkontru hartaz baliatu gehiago haren argitzeko.

Mariak Jinkoari usten zioen artha harenzat hain ohoragarriak ziren sekretuak denbora

zenean kanporatzeko. Bethi humiltasunezko sentimendutan egoteko, zakarken ispirituko atzionerik handiena.

Gisa berean behar diotegu gizonei gorde zer garen Jinkoaren begietan; zer errezibitzen dugun haren liberalitate eta frankiatik.

Berthute gorde bat bethi segurean da. Jinkoari dagoko gure ezagutaraztea. Bere trezora agerian darabillana, haren galzeko hirriskuan ematen da. Kolore bizienak eta miñenak histen dire aire handian.

Gizon itsu eta sensukorrek ez dute prezatzen edo konprenitzen ere sensuez gorago dena; Jinkoaren ispirituaren araberakoa dena hei hartaz minzatzea, da gauza sainduenak heien trufa eta hirriei paratzea.

Jinkoak nahi du guziak sekretu izan daitezen haren, eta fagorutzen duen arima baten artean. Millen artean hautatuko duzun gizon xoil batek, zure kofesorak, ezagut ahal detzake; ezagutu ere behar ditu zure arimako aberatstasunak heien baliarazten irakatz diezazunzat. Hark dauka hemen Jinkoaren plaza salbamenduaren eta perfekzionearen bidetan zu ibilarazteko.

Bertzez denaz bezanbatean, heien ainzinean izan zaite kanpoz yende prestu eta berthute dutenak bezala aphalt, modest, arrai bethi umorez berdiña. Bañan barnea izan dakioten zarratuba.

Utz diozozute sinhesterat guti Jakinsun zarella gauza ispiritualetan, eta zarenetik bertze bat, zarella, hori da zorion bat Jinkoak egiten darozkitzun graziak gerizean ematen dituen.

Jinkoak nahi du haren bidetan karrekin ibil gaiten; ez da ordean abantail arin bat, erraten ohi den bezala, haro guti egiñik hetan ibil gaitzen.

Asko arima Jinkoa ganik grazia hanits hautesiak ardietsi ondoan, galdu dire atsegin bano bat hetaz harturik; eta hek jakin behar ez zituztenei loria sobrarekin hetaz minzaturik.

Izan balute Birjina Sainduaren barneko dispozizionea, bethi berekin Jinkoaren argia dakarken humiltasunak, izialdura zuhur bat emanen zioten; eta ikusaraziko ziotzoten urguilleriaren antze eta artifizio guziak.

Ezin sobra artha har dezakezu debozitionean zure buruba enganatzerat ez usteko; bañan

bereziki bide xehatu batetik kanpoan ibilli nahiko duzunean.

Bethi ikusi izatu da egiazki barrenkorra den arima bat penatzen dela, eta Jinkoaren nahiarenzat duen sumisione guziaren beharra baduela, permetitzen duenean ematen diotzan grazia berezi hetarik zenbait kanporat ager dadin.

XIV. KAPITULUA

Fedeaz

Maria seguratu izatu zenean aingeruaren bozaz, Jinkoa bera minzatu zitzaioela; ziñez eta fermuki sinhetsi zuen Aingeru hark adiarazten ziotzan guziak obratuko zirela haren baitn, eta etzuen billatu sinhetsten zuenaren konprenitzea.

Ez du axasek bezala seÑale bat galdeiten. Ez da Zacharia bezala dudan ematen; ez dio orduan, nola horiek konplituko dire; nola munduratu eman behar dudan semeak gizonen erospena obratuko du. Urrun haren ganik, arima flako eta herbalei baizen ez dauzkoten galde eta kuriostasun horiek, bere Ispirituba makurarazten du fedearen ustariaren azpian.

Haren etsenpluat apha! hadi O ene arima! Hire argi guziez goragokoak diren egia batzuei hire adimendua azpian ematen diotelarik ez hadiala ibil fedeak irakasten darozkian misterio batzu konprenitu nahiz, ez lituzkek gehiago mis-

terioak konpreni ahal bahetza, asko duk yakitea egiak direla.

Misterio hek ezin konprenituzkoak dituk, aithortzen diat, fedeak ordean gal lezakek bere merezia; gizonak bere adimenduaz hek xeha eta explika ahal baletza, dohatsu, ikusi gabe sinhetsi izan dutenak.

Munduan hasi zeruko argizagietarik sorhota-ko lorerik mendrenerañokoan, guziak hiretzat misterioak dituk. Misterio natural hek ezin konpreni detzakek: eta nahi hituske bada konprenitu Jinkoaren misterioak?

Klarki nahi gintuzke ikusi Jinkoren gauzak; lurrekoak axaetik eta erdizka baizen ikusten ez ditugunean. Ez ditugu neurthu behar gizonaren ispirituko argi eta ezagutza aphurrak, izate infinitu eta ezin konprenitua den baten obra eta botherearekin.

Jinkoa denetik bertze bat liteke, haren izatearen funts guzia ezagutzeko gai bagiñe. Egia soberanoari obediencia oso baten bihurtzea da, begiz ikusten ez diren, adimendubaz konprenitzen ez diren gauzen sinhetstea.

O ene Jinkoa! Fedearen bidez ene ganat hedatzen ditutzun argien arabera nahi dut hemendik harat gauzez yuiatu; eta ez ene jakintasunaren gañean.

Ez darotazu baxharrik galdeiten ene bihotzaren sakrifizioa; nahi duzu oraiño fedearen medioz egin diezazudan ene lspirituarena. Esparanja dut zerurat helduko naizela; han guziak ageriak izanen dire.

Ordean zeruan berean ez ditut behinere osoki konprenituko ez zure perfekzioneak ez zure obrak; zeren bethi mugarrigabea izanen baitzare; eta ni izanen bainaiz bethi tipia eta mugarristatua.

Sinhetsten dut Jauna; ordean finka zazu ene fede eskasa; emenda zazu ene baitan fedea. Behar den moldean galdeiten baderautzut, ezin errefusatuko darotazu dohain guzien itho urria den fedearen dohaña.

Eman diezadazu fede bizi, guzietarak hedatzen den, dudarik batere gabea den, deus ere berezten ez duen fede bat. Duydatzea ez da sinhestea. Pontu xoil bat berezten duenak, guziei kontra egiten diote.

Eman diezadazu karitateaz pixtua, sustatua den, fedeak irakasten darozkidan egien arabera bizi-eraziko nabere fede bat: ez darotzut eskatzen fedeak sailduei egiñarazi diotzoten mirakulluen obratzea; bañan bai, sailduak egin izatu dituen fede hura.

Ararteko ematen darotzut Birjina Saindu hura zeñak bere fedearen merezimenduaz ikusi izatu baitzituen bere baitan konplituak zure partez adiarazi ziotzoten guziak.

XV. KAPITULUA

Arima batek Jesus Komunionean errezibitzeko izan behar duen lehiyaz

MARIAK

Ene haurra ya irakurririk heldu zaren misterioak, oraño egiñaraz dietzatzuke gogoan ez ditutzun asko erreflexione.

ZERBITZARIAK

Zeruetako Erregina! Zato, zeronek argi nazazu. Minza zakizkit; enzuten zaitu zure zerbitzariak.

MARIAK

Aingeruaren bisita izan nuben baño lehena-go, Israelgo justuen pare, errekeritu nuen zerua, arren ganbia zedin ihintz gozo batetarat; eta lurraren ganerat jautsaraz zezan yustu guzizkoa. Ez ninzen ordean behinere menturatuko pensa-

tzerat, ni behar ninzela izan munduari Salbatzaille bat eman behar zioen Birjina hura.

Bizkitartean seguratu izan ninzenean hautesia ninzela haren ama izateko; oi! ene haurra, behertzen ninzelarik hain zortha gora eta dohatsuaren bistan; zer bozkario ez nuen izatu ene Jinkoa ene erraietan ekartzeaz.

Bere Inkarnazionean nerekin hain barna eta hertsiki bat egin nahi izatu duen Jinkoa berak, gutizia du, ene haurra, Komunionearen medioz zurekin bat egiteko. Oi, zein lehiya guti duzun ordean haren errezibitzeko.

Ez zaitezela trika mahain saindutik zure urrunarazteko nagitasunak eta humiltasun falso batek asmarazten darozkitzun eztakuruetan. Beldurra eta errespetua dakarzkettu aitsekiaztat; ordean beldurrak eta errezpetuak amodioari amor eman behar diote; eta baliatu behar dire amodioa atzarriagoa billakatzeko.

Errespetu baten itxuran Komunionetik urrun-tzea, da gurekin egoteaz luken atsegina Jesusi goratzea. Atsegin hura nahi duela, erakutsi darotzu, erran darotzunean; gizonen umekin egoteaz dituela bere delizioak.

Zure hutzak, diozu, husuegiak dire hain maiz Sainduen Sainduaren ganat hurbilzeko. Ordean, ene haurra, nahi bezanbat erorkorra izan dadin arima bat, bethi Jesus plazerekin heldu da haren ganat bere ahalak egiten baditu korreyitzeko.

Diozu, Komunioetik urrundua zaudezela zeren indine baitaukazu zure burua; behar zinduke erran; nere baitan den bezanbatean nahi dut gai izan, Jesusek arima debotei Komunioaren bidez ematen diotzoten grazietan partalier billakatzeko.

Zertako dire hain bakanak zure Komunio-
neak? Zeren belduzen baituzu nekhea; nahi baituzu aisiyan bizi: beldurtzen baituzu husu Komuniatzerat usteko, zure ganik galde lezaketen bizitze karsu hura.

Errenkura zare zure herbaltasunaz eta zure arimako gaitz eta eritasunez. Balia zaite beraz biziaren ogian eskañiya zaitzun erremedio efektuzkoaz.

Jesusek Ebanjelioan bere othurunzarat gonbidatzen ditu herbalak eta eriak; Itsubak eta erroresak. Ezagutzen ditu zure beharrak eta miseriak, bere sakramenduan eskainzen darotzu zure

sendatzeko eta borthizteko gisakoa den yanari bat.

Nahi izateko liteke izan zindezaken saindutasun oso eta perfet bat Komuniatzeko. Ez du ordean Jesusek hura baitezpada galdeiten. Premiazkoa balitz gutiak litezke haren gonbidu guzien despit, han errezibituak litezkenak.

Saindutasun perfet hura Komunioneari darraioen fruitu bat da; eta ez hartarako dispoziõione baitezpadako bat. Zoaz mahain saindurat zure indinitateaz aithor zin ziñeko bat egiñik, bereziki bihotzeko garbitasun handi batekin; edo bederen haren ardietsteko gogo egiazko batekin; orduan zure Komunionea ungi egiña izanen da.

Orhoit zaite Komunione on bat ez dela behinere ariman zenbait efetu on egin gabe. Zure leialtasunaz eta atzartasunaz eman izatu baziñe husu Komuniatzeko estatu hortan, ia ungi ainziñat gana zintezke perfekzionearen bidetan.

Zeruan Jesusen presenziaz gozatzea berantesia duen arima batek, bere atsegin guziak ematen ditu lurraren gañean ahal bezain maiz Komunionearen bidez hartaz gozatzean.

XVI. KAPITULUA

Komunionearen Medioz Jesus berekin duen arimak, izan behar dituen sentimenduez

MARIAK

Ene haurra, mahain Sainduan Jesus errezibitu duzun ondoan, eta oraño zure bihotzaren gañean pausatua dagoen denboran; izan zatzu nik hura ene erreietan nazarkenean nituen sentimenduak.

ZERBITZARIAK

O Maria! Jinko xoillak ezagutzen du nolakoak ziren orduan zure sentimenduak eta zure arima erretzen zuten amodioaren su lamak. Gizonaren ispirituak ezin hek konpreni detzake; mihiya ezin hetaz mintza daiteke. Fedea, humiltasuna, zeloa, ezagutza, karitatea; berthute guziak zure baitan ziren.

MARIAK

Ene haurra, sentimendu berak zintuzke zuk ere, ungi konpreni baziñeza Jesusek sakramenduan bere burua ematen darotzunean egiten darotzun graziaren balioa.

Kreatura da bizitua kreatorreaz, erromez bat loriaren Erregeaz, arima doloratu bat zeruko konsolatorreaz, bekhatua baizen ez den gizon bat, saindutasuna bera denaz.

Nekhez zinoazke presuna baten ganat, ez balu gutziarik zure ikusteko; bere otxean idukitzen balitu: eta beldur baziñe harn ganik ez duzula errezibituko bagitarte pisu, edo laidorik ere baizen.

Beraz behera behera zaite zure Jinkoaren ainiñean; auhonda zatu zure espergabetasun iraganak. Ethorkisuneko galde diozozu bere laguntza; agin diozozu bethiereko leialtasun bat.

Bozkario garbienaren gaindiduran eman zaite, errekeri zatu Aingeruak eta Sainduak, arren zure orde Jesusi bihur diotzoten egiten darotzun dohain manifikoaren araberrako eskerak.

Gutizia zazu hain Jinko samur eta maitagarria zeruan den bezala maitatua eta lorifikatua izan dadin lurraren gañean. Zure bihotza zabal diozozute haren amodioaren khar guziei. Desira zazu hetaz iretsia, konsomitua izatea.

Egiten darozkitzun fagorien ezagutzazat eta zure herbaltasunaren ondainzat, ofrenda diotzoztu hura sakramendu berean debozione eta amodiorekin errezibitzen duten arima sainduen sentimendu guziak.

Gogoan erabilatzu mahain sainduan ematen darozkitzun berthutezko etsenplu handiak; beregainki haren humiltasuna. Sakramendu huntan ez xoilki haren Jinkotasuna; bñan haren gizontasuna ere estaliak dire: fedearen begiz baizen deus ez dugu Jesusenetik ikusten.

Galde diozuzu, onetsaraz diezazun bizitze gorde eta atsekabezko bat. Ihes egin diozozuten ohoiei, handitasunei, distiadurari: zur akzionateak egin detzatzun ikusia eta estimatua izatuko gogorik gabe.

Sakramendu huntan Jesus, asko yendien arbuioen, harenzat guti, munduarenzat hañitz, bere burubenzat guziak diren bihotz batzuen

esaxolatasun eta indiferenziaren objet bat da. Eskadio zozu ixillik eta pazientki iroi etaainjurio-en yasateko grazia.

Horra, ene haurra, zer behar duzun egin Komunionean; zer behar duzun gogoan erabilli Jesus errezibitzeko zoriona izatu duzun egun guzian.

XVII. KAPITULUA

Zenbait arimek debozinezko exerzizioetan; eta Komunionekeo denbora berean, izaten dituzten idortasunez

ZERBITZARIAK

Jesusez landan ene argia eta ihes lekhuazaren Birjina; eskerrak darozkitzut eman darozkidatzun lezinez eta instruizinez: maiz ordean Komunionearen denboran sentimendu saindu hetan sartzeko ekhartzen dudan artharen despit, ene ispiritua idor idorra da; hormaren pare dut ene bihotza.

Oxala bada orduan guzta banetza, zuk Jesus zure sabelean ziñakarkenean, eta arima debot batzuk bere Komunionekeo denboran guztatu dituzuen plazer gozo eta deskansu maitagarriak.

MARIAK

Ene haurra, Komuniatu ondoan kausitzen zarenean nakazdura etra idortasun batetan, humilia zaite ezagutzen duzularik estatu hura zure hutsak eta erorkoak direla kausa merezitzen duzula. Pairakortasunekin jasan zazu, eta ez dezazula gogoia erortzerat utz.

Ustetzeko arrozoin balin baduzu estatu hura punimendu bat dela zuretzat, Korreyi, zaite: ez bada frogia bat baizen, merezitzeko sujet bat egizu Jinkoaren nahirat erortzen zarelarik.

Komunione on baten fruitua; ez da baitezpada Komunione beraren goztua. Fruitu hura da, eginbidien bethetzeko leialtasuna; bihotz bat izau daiteke zin zinez eta oso osoa Jinkoarena, Jinkoaren gauzenzat gusturik batere ediren gabe.

Hanitz arima kharrekin perfekzionearen bidean dabilzanak, nahiz othoitzean, nahiz mahain saindurat hurbilzen direnean frogatuak eta nekhatuak dire barriadurez eta idortasunez.

Guztu ageriak eta sentitzen direnak, ez dire premiazoak berthutearenzat. Batzuetan beldur

izateko ere liteke arima bat hetan sobra pausa dadin.

Jesusek ez du inoratzten zer zaien konbeni haren esposei. Batzuei ematen diotzote bertzei ematen ez diotzoten gozotasunak eta konsolamenduak; konprenitu nahiz ibilli gabe, hauk adoratu behar ditusten arrosoñen gatik.

Arima uzkur eta nagi batek iduriki behar ez baditu Jesusen liberalitateak; ez du orobat arima karsu eta leial batek damurik izan behar Jesusi erakustiaz bere gatik hobeki iarraitzen zaioela, haren ganik idurik ahal detzaken sarien eta dohañen gatik baño.

Ez dezazula beraz uste izan Jinkoaz arbiatua zarela haren zerbitzuan unhadurarik eta desgusturik baizen sentitzen ez duzunean; bañan orduan egizu leialki, gustu edireten bazindu; egin ziñezakena.

Zoaz, ene haurra, zure Jinkoaren ganat fedearen bidez. Billa zazu guzietan haren gogara egitea. Hori ardietsten baduzu, kausitu dukezu sainduiek billatu eta ediren duten zoriona.

Idortasunezko estatu bat hanits gaia da zure Saindutzeko, balin badakizu hartaz baliatzen Jin-

koaren desenuiei ihardetsirik. Jinkoaren gogoan, estatu hartan zauzkanean, da, zure burua billatu gabe; haren nahiaz zorion eta merezimendu bat zuri egiñaraztea.

ZERBITZARIAK

Birjina Saindua! Pontu horren eta gañerako guzien gañean, erortzen naiz ene nausi dibinoaren nahi guzietarat. Nahi banau eman guztu ageri eta sentitzen diren hek izaten dituztenen balsako; izan bedi benedikatua: eta hek nahi ez badarozkit eman, izan bedi orobat benedikatua.

Ez diot Jesusi galdeiten bethi harenzat leial izateaz landan, bertze konsolamendurik. Nere burua infinituzki dohatsu itxikiko dut, ene bihotzaren kontentamendu guziez, Jesus ene Jinkoari sakrifizio bat egiñen diodanean: ene eginbidea betheko dudanean, haren gogara egiteaz landan, bertze plazerik gogoan izan gabe.

XVIII. KAPITULUA

Ungi bizitzeko Komunioetik athera behar den Progotxuaz

ZERBITZARIAK

Amodio puruaren Ama! zure izatearen lehen mementetik guzia saildua izatu ziñen; ordean zenbat etziñen ainziñat gan saildutasunaren bidetan, zure errai garbietan Berboa haragiz bestitu zenaz geroztik.

Zure bizi guzian iraun zuten, Jesusen presentziak bederatzi ilhabetez zure baitan eman izan zituen saildutasunaren inpreñuek.

Jainkoak egin zarotzun grazia guzizko haren orroitzapenak azken hatserañokoan itxiki zintuen griña saildu batetan hari zure ezagutzaren erakusteko moldea kausitu nahiz.

MARIAK

Ene haurra, ene etsenplua zure ahalkarezteko da. Komunioean errezibitzen duzu saildutasun guziaren Jinkoa; eta urrunda saildu bat bai-

tzare. Komunione xoil bat asko liteke sainduen khar guziaz zure bethetzeko; eta zure Komunio-
nek bethi uzten zaituzte zure lazokeria guziare-
kin.

Jesusek bere ontasunak frankiarekin ematen darozkitzu; eta zu bethi hari bekaizten zaizko. Haren presenziak egia da, errezibitu duzun ondoan berthutezko sentimendu handienak zure baitan pitxarazten ditu. Egiten ere diotzotzu aginzak; ordean zure aginzak eta sentimendu onak laster sunsitzen eta urmariatzen dire.

Bertzela egin ziñezake bere bizitaz ohora zinzaken munduko handi baten alderat. Senti ditugunean adiskide baten ungi egiñak kexa gare hari gure ezagutzaren erakusteko; amodioa ez da deskansuan, moienak ediren dituzken artera-
ñoan.

Eskaz ditutzu bada, ene haurra, sainduak Komunioaren ondoan Jesusi bere eskerren bihurtzeo enplegutuan ematen zituzten berthutezko okasione hek?

Guzien gañetik galdeiten du atzartasun handi bat bihotzaren iaiduren gañean; halabai non, bakhar bat ez baita behar izan harenzat ez

denik: artharekin zure burubaren gañen atzarria baziñaudez. Komuniatu ondoan; bethi iraun ziñezake Komuniatzean zinduen debozioanean.

Atzartasun hura Komunione bakotxaren ondoan, da, Komunione berri batenzat ekhar ahal dezazuken preparazione hoberena.

ZERBITZARIAK

Berthute guzien etsenplua zaren Birjina! zure oñetan gorritzen eta ahalkatzen naiz ene laxoke-riaz eta ene eskergabetasunez. Jesusi othoitz egiozu ez dadin behinere ene bihotzerat ethor; bere ganat osoki itzularazten dituelarik, haren mobimenduen erregelatzeko baizen.

Errekerizazu ken diezadn hartaz indine den bihotz triste eta gaixto hau. Nere baitan berriz egin dezan zurearen iduritako izanen den bihotz bat; erran nahi da, bihotz karsu, emaille, samur, eta konstant bat; harena gure laderat den beza-la.

XIX. KAPITULUA

Lagunaren alderako amodioaz

ZERBITZARIAK

O Birjina guzien artean karsuena! zure xedeak bazintuen Nazaretheko bakhartasunerik ilki ziñenean kanporat agertzeko Karitatezko ispirituak ziñarabilzan.

Ez darotzu hain laster Aingeruak adiarazten Elisabeth zure ahaide saildua edireten den estatua, non lehiatzen baitzare haren ikhusterat gateko. Erresakan zoaz, dio Ebanjelioak; Ispiritu Sainduaren inspirazionek ez dute nahi uzkurta-sunik izan dadin hei ihardeteko.

Iragan behar ditutzun mendi gorek etzaituzte baratzen. Karitateak bere eginbideak bethetzen ditu animorekin eta ieneroski. Denbora batetako usten ditutzu zure bakartasuneko gozotasunak; karitatearen eginbidei amor eman behar diote debozionatearen guztuek.

Zure karitatea ez da iragankorra eta enpa-santekoa; hirur illabetez bazaude Elisabethen

etxean hari zure lagunzen eta arthen emateko. Nolako efetu dohatsuak etzituen ekharri karitatezko bisita hark? Elisabeth bethea izatu zen Ispiritu sainduaz, Joanniz Batizta Sainduta izan zen bere amaren sabelean.

Elisabeth eta haren esposa bizi ziren berthute guzien pratikan; ordean zure etsenpluetarik ikasi izan zuten are hobeki heien pratikatzen.

MARIAK

Ene haurra, Maite baduzu Jinkoa, Maitatuko duzu zure laguna; zeñaren gatik zerutik jautsi eta gizon egin baita; eta zeñaren saltatzeko bere bizia eman izatu baitu gurutze baten gañean.

Ez zaitezela geldi bihotzaren barneko amodioan, zure karitateak behar du izan efetuzkoa eta obrez konpañiatua. Zenbat lazeriatu ez dire zure hitz onez konsolatuak izan behar dutenak? Zenbat erromes solleyituak izateko zure emaitzen begira daudezenak.

Jinkoak nahi izatu du, lurraren gañean izan zedin hanits miserable, hek bere pairakortasunaz; zu, zure karitateaz sindu billaka zaiteztenzat.

Pruntki eta berehala emazu emateko duzun hura: luzamenduek bethiere karitateari zerbait galarazten diote bere merezimendutik. Frankoki egizu amoña; emozu hari eman ahal diozozuzuk-en hedadura guzia.

Lagunari bihurtzen zaizkon zerbitzuetan motx eta zikinkara izatea; da, karitatearen egin-bidei itzuli nahi izatea, hek bethetzen direlako itxuran.

Ezin zeronek lagun dezazukenean, bederen ararteko iar zakizko bertzen aldean. Gutienaz, haren fagoretan herxazazu Jinkoaren ontasuna. Lagunaren baitan ez diozozula gizonari begira, bañan bai Jinkoari. Orduan nor nahi izan dadin, sokorri galdetuko darotzuna, ez diozu atzaparra zarratuko, zeren ez baiziñoki nahi Jinkoari deus errefusatu.

Ez bagiñote gizonei ungerik egiten bere merezimenduen eta kualitate onen ariaz eta arabera baizen; nekhez eta bakhan egin giñozakete. Ene haurra, onetsatzu gostako zaizkitzun karitatearen obrak. Atsegin izan zazu zure minberatasunaren eta amodio propioaren despit karitatea pratikatzeaz.

Jinkoak bere etsenpluaz irakasten darotzu gizon guziei, eskergabeenei berei ungia egiten. Emazu, erran du Jesusek, eta emana izanen zaitzu, ematzu zenbait denborako aberastasun, eta Jinkoak emanen darozkitzu eternitatekoak.

Bere dudetan argi zazu laguna konseillu onez, Jinkoak ordañez zeroni argituko zaitu. Konsolamenduzko solhasak errotzute afliyituak direnei; eta konsolamendu guzien Jinkoak bere graziaren hitzez borthiztuko zaitu zure lazerietan.

XX. KAPITULUA

Jinkoaren handitasunez

Enzun dezagun, o ene Arima! enzun dezagun Maria, espantu saindu batekin Jinkoaren handitasunez minzaten; sar gaiten haren sentimendu beretan. Gure laudorioak harenekin balsa zatzi-gun.

Harekin batean lorifika dezagun gure Yauna Jinko guziz puxant hark plazer duenean obratzen ditu mirakullurik handienak; haren izen infinituki saildua denak, merezi ditu mundu guziaren errespetuak.

Hark bere besoaren botherea agertzen du, luperren gogoeta eta diseñu guzien iraulzeko. Lurraren arraz ematen ditu mundu huntako handiak, aphalen goratzeko; billusten ditu aberatsak, beharrean direnak untasunez bethetzeko.

Eta egiaz o ene Jinkoa! nori dauko zutaz landan ohoratua eta lorifikatua izatea? Mugarriztatua, maillegatua da mundutarren handitasuna.

Herbala da, gure opinioean datza: eta maiz ipinione hura falsoa da.

Zure handitasunak, o ene Jinkoa! ez du mugarririk ezagutzen: zure baitarik daukazu, haren azpikoak dire gañerako handitasunak. Erregiena siñatzen da hekien biziarekin. Habarroz piska bat egiten dute erortzean; ordean laster sekulakotz ahantziak dire.

Zutaz denaz bezanbatean, Yauna, eternitate guzian irauten duzu. Zure loria ezin daiteke ez munduaren eremuez, ez denboraren mugarriez zarratua.

Zure kreaturek zure ganik dauzkate dituzten podorea eta aberatstasunak. Zu gabe ezin deus egin dezakete; hek gabe nahi duzun guzia egiten duzu.

Zu zare baxharra zure baitarik handia zarena. Ez duzu bothere arrotz baten premiarik zure nahi guzien egiteko. Nahi izatea eta egitea; berbera dire zuretzat.

Zure baitarik ilki gabe, zure baitan edireten dituztu, ordean mugarririk eta narraiorik gabe; ageri diren eta ikusten ez ditugun izatiek, ahal dituzketen perfekzione guziak.

Mundu huntako yende handiek ez dituzte gure errespetuak merezitzen, baizik zeren diren zure zure handitasunaren imayinak; eta zeren fidatu nahi izatu diozuten zure botherearen parte bat. Bertzenaz zer dire hek zure aiñziñean? Hautsa, herrauts papur bat gañerako gizonak bezala.

Sunsi, urmaria beitez beraz zure bistan munduko handitasun guziak. Ez da egiazko handitasunik, ezin emenda ezin guti daitena baizen.

O Yauna! berthuten Jinkoa, nor da zure iduritako? Zuk baxharrik merezitzen ditutzu zeruaren eta lurraren adorazioneak; zeren zu baitzare baxharrik Jinko handia, Jinko bethi handia, toki guzietan, eta manera guziez Jinko handia.

Handia zure obra guzietan; mendreanean miragarrienean bezala. Larretako lore ezdeus batetan, zeruko argizagietan bezala, handia zuhurtzian, puxantzan, iustizian, ontasunean. Eta nor Jinko handia! zure handitasunez behinere minza othe daite zuri dautzun bezala.

Aithortzen dut ene ahal eskasa. Aitormendu hori ohoragarria da zuretzat. Zure handitasun

infinituari homaia bihurtzea da, laudorio eta erran guziez gorago dela ezagutzea.

XXI. KAPITULUA

Jinkoaren miserikordiez

ZERBITZARIAK

O Maria! zer bozkario dudan zu enzuteaz Yaunaren miserikordien kantatzen, haren handitasunak kantatu ditutzun boz beraz! Oi! nola irakasten darotazun heien prezatzen.

Yauna beldurzen duten guzien gañean pausatua dire. Bere hasarreduran bekhatoreak zehatzen baditu: bere gaztigu ikharagarrienak iasan arazten badiotzote; ez du hori egiten bere ungi egiñez heien irabazterat ensaiatu ondoan baizen.

Ezin haren Populuaren eskergabetasunek eta gaixtakeriek agortu dute haren samurtasunaren ithurburua. Bethi zabaldu diotzote bere miserikordiaren erraiak, aita baten ontasunarekin.

Abraham eta haren leñuari agindu zaroen, erresketazaille bat egorriko ziotela. Hura agertu da; eta gizonek nahi eta ez, ezagutu behar izatu dute heienzat zuen amodioan.

Dohakabe guziei eskua hedatu diote lagunzenko. Bekhatoreak, haren ungi egiñetan parterik behar etzutenak; izatu dire haren zeloaren objet bereziyak.

Pena eta bihotzmin handienarekin baizen ez du ikusi bere burua utzia; haren zerbitzarien eta adiskiden balsan izateko zorion preziatuari libertate falso bat preferatu dioten arima ingrat eta esker gabe batzuez.

Ezin ahitua zen. Bere amodioari azken koroaren emateko, igandagurutze baten gañerat; eta han bere odola isuri du azken xortarañoan.

Gizonek estatu hartan ikusi izatu dute; oraño ere begiratzen diote; heien bihotza kantitua izan gabe. Bizkitartean hek sunsiarazi behar lituzken ozpiña oraño geldi dago. Bethi haren miserikordia eta odolaren boza heien alde oihuz daudez.

Ni neroni naiz, Birjina Saindua! bekhatoren idurikitze duen pairakortasunaren, heien errezibitzeko duen errextasunaren, etsenplu eta froga señaletu bat.

Ardi errebelatua arthalderat eraman izatu maiz arzain dibino hartaz. Bere sorbalden gañean garraiatu nau, beldur izan balitz bezala

sobra nekhatua izan nindadin haren ganat bihurzean.

Ez nihoiz ez dut ahanziko egun hura, zeñetan aita samur hark ikusi ninduenan ume prodigo baten pare haren ganat itzulzen; besarkatu, bere nigarrez busti, bere besoetan hartu, eta tinktika bere bihotzaren kontra karratu baininduen.

Oi! zein ona, zein samurra den Jinko hura! Zin ziñez zaurthua eta humiliatua den bihotz baten biztan, ahanzten du iuie bat dela; baxharrik aita dela orhoitzeko.

O Birjina! miserikordien Jinkoaren ama, ararteko eman zarnaz geroz ene konbertiarazteko, ardiets diezadazu bethi ungian irauteko grazia.

Badakizu zein funts guti egiteko den ene gogorik hoberenetan. Nere baitan konserba, finca, perfekzionerat ekharatzu zure graziak sorarazi darozkidan saindutzko gutizia berri hauk.

Zure baitan izanen dudan esparanza, ez da zuk neretzat duzun amodioa baño gutiagoa izanen. Ene salbamenduaren etsaiak gehiago egiñen othe du bada ene galarazteko; zuk saltarazteko egiñen duzun baño.

O beraz Ama guzietarik maitagarriena eta samurrena! Zure umeari ardiets diotzotzu iragan denborarenzat urrikirik miñena; presenteko, leialtasunik handiena; eta ethorkizunekotzat, deusek ezin inharrosiko duen konstanzia bat, eta eternitate guzian kantatuko ditut zeruan Jaunaren misericordiak, eta zure ontasuna.

XXII. KAPITULUA

Jinkoari bere ungi egiñenzat zor diogun ezagutzaz

Munduan naizenetik hunat hanbat grazia nahiz denborako, nahiz ispiritualeko eman darozkidatzun Jinko ona! zuri eskerren bihurtzeko ofrendatzen darozkitzut Mariak bere bizi guzian, eta beregainki Zacharia eta Elisabethen etxean sartu zenean zure ungi egiñenzat zituen ezagutzazko sentimendu guziak.

Elisabethek Mariari ematen ziotzan merezi zituen laudorioak: Mariak ordean nahi zuen Elisabethek ahantz zezan ungi egiñak errezibitu zituen; ungi egilleaz baizen ez orhoitzeko.

Nahiko zuen o ene Jinkoa! kreatura guziak harekin bat egin balire, eman ziñotzan dohañez zure benedikatzeko. Ez zaukan bere burua dohatsu, baizik zeren guziz botheretsuak bere begiak etxatu zituen bere sehiaren gañerat; agertzeko zenbat den handia, zenbat den miseriakordiosa.

Helaz! Yauna, nere baitan holako sentimenduak ikustetik urrun; eman darozkidatzun zure amodioaren se\u00f1alen ondoan; ez duzu ikusten ingrati bat, eskergabe bat baizen.

Zu ganik onak erezibitzen ditut, eta gizonei eskerrak bihurtzen diotzet. Gogara doazkit gauzak, eta ene anzeari, ene fetxotasunari iraxakitzen diot zure lagunza xoillaren efektua dena.

Ba\u00f1an bereziki zer naiz bada, eta zer egin dezaket nere baitarik, salbamenduaz denean kuestione? eta hala ere ez naiz orhoitzen eskerrak bihurtu behar darozkitzudala lan handi haren egiteko ematen darozkidatzun sokorriez.

Nere baitan balin bada zerbait agradatzen zaitzunik; hura baxharrik zure ganik dut: eta zu gabe ezin konserba dezaket. Nere nahitarat egia da, zure graziari ihardesten diot; hori bera ordean neretzat ezagutza izateko arrosain berri bat billakatzen da; zure lagunzarekin baizen, ungia nahi izaten eta egiten ez dudana geroz.

Oi! ene arimaren herbaltasun eta miseria ezin konprenitua! zer billaka ninteke zure graziak falta egiten baleraut, eta zein errebelamen-

du deitoragarrietarat ez ninzakete traña ene iai-dura dohakabek?

Ez dut neretzat deus segurik ikusten ene her-baltasunaz dudan opinioean eta beldurrean baizen. Egizu, o ene Jinkoa! ene leialtasun eska-sa ez dakidan traba bat billaka zure ungi egiñen errezibitzeko; eta ene eskergabetasunak ez die-tzakidan hek behinere ahantz araz.

Zure bihotza ez da deskansuan ungi egiten hari zarenean baizen: badakit ordean eskerga-betasuna dela bizio guzien artean gehienik zure miserikordien korsua baratzen duena.

Ehun aldiz merezitu dut heien efetuen ez sentitzea; bañan nahi izatu duzu ene bihotza ira-bazi eta garaitu hari ungi egiñaren forzaz. Ez darotzut gehiago kontra egin nahi hemendik harat oso osoa zuretzat izanen naiz. Zutaz bai-zen bizi ez naizen bezala, ez dut bizi nahi zure-tzat baizen.

Egizu ordean, zure graziaz ene beharrak eta zure ungi egiñak bethierekoak diren bezala; ene bizi guzia iragan dezadan zure ontasunen galdeit-en, eta zuri hetaz eskerren bihurtzen.

XXIII. KAPITULUA

Bizitzez

Mariaren etsenpluak Elisabeth bere kusinari bihurtzen dioen bisitan; irakasten daroku, elkarren alderat itxiki behar dugun bizitzeko moldea.

Jinkoaren ama izan arren, Birjina humil hark ez du idurikitzen Elisabeth aiñzin dakioen: hala, kondentzen du bere graduen ielos diren hanbat presunen minberatasun falsoa.

Zerk Maria ekhar zezaken bizita haren egiterat? ezin zaiteken zenbait errelijionezko arrozoin baizen.

Kuriostasunak, banitateak, amodio propioak munduan bihurazten dituzte bizitza gehienak; ez da orobat Mariak, Birjina guzien artean leialenak bihurtzen duenaz: xederik sainduenek egiñarazten diote.

Presuna Jinkotiarrek bere bizitetan berthutien mobimenduz dabilza: munduak bizita hei begiratzan ez dioen arren kortesiaren eginbide batzuei bezala baizen.

Debozioaneak, karitateak, Jinkoaren loriak daramate Maria. Jinkoa zerbitzatua eta maitatua den etxe baterat doa; bere ahaideari Jinkoak egin diotzan graziez duen bozkarioaz parte ematerat. Bizitatzen du batasun saindu baten lokarriak hertsikiago amarratzeko gogoarekin.

Debozioaneak ez gaitu gibelatu behar elkarri zor diotzogun honestasunezko eginbidien bethetzetik: nahi du xoilki xede giriztinozko batzuekin eta sailduki konpli detzagun.

Yende debotek atsegiñekin egiten dituzten bizitak dire, etsenplu onak bertzien baitan kausitzeko, eta berek hek emateko egiteko dituztenak.

Bertze gañerako bizitak ez dire heien gogara-koak, unhagarriak zaizkote. Berthuteari laket zaio berthutearen aldean izatea.

Sainduak Jinkoaren loriarenzat, lagunaren etsenplu onarenzat, eta bere perfekzione propioarenzat baliazten dituzte indiferentienak iduri duten akzioaneak.

Heien arabera egin bagiñeza, eta xede bera-ekin elkar bizitatzen bagindu, zer abantail ez giñetzake kausi kortesiazko komerzio hortan?

Munduko presunek ezagutzen ez dituzten milla plazer garbi eta inozent hetan guzta giñetzake. Hetaryik ilki gintezke ez munduko bizitek bihotzean usten duten huts eta eskaz harekin; bañan bai, yende prestuen partaiaden barneko gozo eta kontentamendu saindu harekin.

Ea beraz, giristinoak, bethi biztan izan zazue bekien ainziñerat eman darotzuedan etsenplua. Maria bezala etzaitzeltela bakan baizen zuen etxetarik ilki; eta ez dezazuela izan ariarik presuna Jinkotiarrekin baizen.

Hark bezala ez dezazuela billa Jinkoaren oho-ratzea, eta lagunari etsenplu onen ematea baizen; eta zuen buruenzat probetxoz billaka zazue gizonekin, borxaz bada ere izan beharko duzuen komertzioa.

XXIV. KAPITULUA

Konbersazioez edo elkharren arteko solhasez

Gogoz banoa Elisabethen etxerat Maria han bizitan duen denboran. Zer modestiazko, humiltasunezko, karitatezko, ixiltasunezko lezione ez ditut han errezibitzen?

Elisabethek Maria ezagutzen du bere Jinkoaren amatzat: ematen diotza laudorioak eta benedizioneak; goratzen ditu haren handitasunak.

Maria ez da lilluratua bere dignitateaz eta pribilioez: ezagutzen ditu guziz botheretsuak haren baitan obratu dituen gauza handiak. Jinkoari ordean bihurtzen dio ohore guzia: eta haren ama den arren, ez du ahantzten haren sehiya dela.

Haren humiltasuna zin ziñezkoa da, eta ez du deus, maiz urguilleria ixil bat baizen ez den modestia falso hartarik.

Eta egiaz zenbatak ez dire, ematen zaizten laudorioak nahi ez dituztenak, gehiago eman

dakiotenzat baizen? Amodio propioaren afiñamendu btez, modestia bera banitatearenezat baliarazten dutelarik.

Jinkoaz, haren handitasunez eta miserikor-diez minzaten dire Maria eta Elisabeth. Haren amodioaz gaindi egiñak direlakotz, bere delizioa edireten dute haren zuhurtziaren, puxantzaren, eta ontasunaren mirakulluak aiphatzen dituzte-nean.

Jinkoaren dohañak gure bozkarioaren bojet xoilla direnean, Jinkoa da bakharrik gure ezkerren eta laudorioen objeta.

Mihiya bihotzaren frankiatik minzo da. Munduaz eta haren banitatez minzaten zarenean, segurki erran ahal daite ez duzula maite mundua baizen; zure bihotza haren edertasun falsoaz ia hartua eta xoratua dela.

Mundukoak dire, zioen Jesusen diszipulu maiteak, hargatik munduaz minzo dire, eta munduak enzuten ditu, Jinkoarenak bagiñe Jinkoaz minza gintezke. bederen deus ez giñezake erran Jinkoaren arabera ez denik.

Orhoit zaite Jinkoaren iuiamenduan hitz alfer batez kontu eman beharko duzula. Zer ikaratze-ko sujet zuretzat?

Ala presuna deboten beren artean ere solhaz guti egiten baitire, zeñetan ez baita emandatzzen; Jinkoari bihurtu beharko zaioen kontua.

Zertaz ardura minzatzzen gare? enotsenkeriez karrikako berriez, funtsik ez duten gauzez. Horiek ere dire inozentenezat itxikiak diren solasak.

Iduri du berze alde, zein elkarren artean minza gaitezkelag lagunaren baiak aipatu gabe. Konbersazionea pisatzen da, kritikaren eta gaix-takeriaren zenbait piko han balsatzen ez denean.

Zorigaitz zuenzat presuna gaizki erralleak, zuen mihiak sugearen estenaren pare zorroztuak dire; atsegiñik ez duzue zuen ganik urrun direnen erreputazionea larrutzen duzuenen baizen.

Zorigaitz orobat zuenzat heien enzuten laket duzenak. Hitzunzikeriei beharriya bere nahirat paratzen dioena, hetan partialier egiten da.

Ez zaitezela behinere nihortaz gaizki minza. Ezin berzeak gibela detzazukenean gaizki minza-

tzetik, bederen zure ixiltasunaz eta aire pisu baten medioz erakuts diozozute atsegiñik ez duzula hartzen, heien medizenzietan.

Higuinza handiena izan zazu garbitasunaren kontrako solhaz guzientzat. Begirautzu urrundak umore ona deitzen duen hizkuntza suerte bati hirkaitzik ere egitetik. Sobra maiz baizen ez da hura pasionearen lengoia bat.

Zure buruari ohore bat egiozu itxikia izateaz presuna batenzat, zeñaren ainzinean nihor ezin mentura baitaite erlijioneari ez debozioneari asperzerat. Trebanzia saildu batekin kontra egiozu gaiztagiñari. Eta ez baduzu bertze ahalik haren solhasen libertinkeria baratzeko, bederen konprenituko duen zenbait moldez irakats diozozu zer pensatzen duzun.

Zure erran guzietan egiaz minza zaite. Izan zaite zure hitzetan modesta eta gardiatua; gañerakoan mundu guziarenzat arraia, bozkario inozent bati antolatzen zaizkolarik: bertuteak hori zilhegi usten; aldi batzutan manatzen ere darotzu.

Zenbatenaz gehiago paratua baizare mihiz bekhatu egiterat, hanbatenaz prekauzione

gehiago ekharri behar duzu hark egiñaraz dieztatzuken hutsen kontra gardian egoteko.

Onetsten badu, buruz buruban Jinkoarekin zure etxean egotea; ondoan hirrisku gutiagorekin atherako zare gizonen aiñziñean agertu beharko duzunean.

Konpañia baterat ilki baño lehen, Jinkoa othoitz zazu zure espāñetan eman dezan gardiazko zarrategi bat. ETa zure solhasak dirabeño, orhoit zaite Jinkoa present dela; eta aditzen zaituela. Denboratik denborarat alxa diozozu zure bihotza.

Solhasa akhabatu ondoan zure buruari kontu galde diozozu erabilli ditutzuen gauzez. Jinkoari eskerren bihurtzeko hutsik egin ez baduzu; edo hetarik korreyitzeko zenbaitetan erori bazare.

Molde hortan ardietsiko duzu bizitze ispiritua-lean nausi direnek hanbat gomendatzen duten prudenzia, eta hitzen gañeko gardia zuhur hura; zeñari arrosoñekin begiratzen baitiote perfekzio-ne haltoenaren pontu bati bezala.

XXV. KAPITULUA

Adiskidetasun egiazkoa

ZERBITZARIAK

Trezor aberats bat da adiskide leial bat, diote Izkribu sainduak. Yaunaren beldurra dutenei, hura agindua zaie.

O Maria! zeruak trezor preziatu hura kausiarazi zarotzun Elisabethi izanarazi zioen zu bezalako adiskide bat eman zioenean.

Batak eta bertzeak ematen darokuzue adiskidetasun perfetenaren, sainduenaren, eta garbienaren etsenplua.

Errelijionezko sentimendu berek bihotzez bat egiten zintuztn. Grazia eta berthutea prezatzen zintuen Elisabeth baitan; eta hek berak estimatzen zituen hark zure baitan.

Elkharrekin bazintuzten solhaz husuak, zuen bihotzak elkari zabalzen; konseilluak ematen, zerbitzuak bihurtzen ziñotzaten: ordean batak bertzeari ematen ziñotzoten adiskidetasunaren

señalek intrez bera zuten, Jinkoaren loriaren intreza.

Elisabethek ikusten zuen haren bihotza zurearekin bat egiñez geroztik, lehen baño sentimendu beroagoak zituela Jinkoarenzat. Eta zu Birjina saildua, hain aiñziña ziñoazen saildutasunaren bidetan, zure ahaidearen etxean; nola Nazarethen, zure erretretan ziñaudezenez.

Elkar ganik apartatu ziñeten, eta zuen adiskidetasuna etzen gutitua izatu. Berthuteak bi bihotz iuntatzen dituenen; ez da inkonstanzia beldurtu behar.

MARIAK

Ene haurra, ez dezazula uste izan adiskidetasunaren gozo inozentak gustatuko ditutzula, non ez ditutzun hek billatzen presuna Jinkotiar baten adiskidetasunean.

Egun guzietz tronpatua izanen zare zure adiskidez egiñen duzun hautuan. Ez zaizko nihori fidatu behar non ez ditutzun haren leialtasuna eta erreligionea ezagutzen.

Edirenen duzu adiskidetasunaren kanpoko markak emanen darozkitzuten adiskide arrunt

eta ordinario hetarik franko. Ez dezazula ordean heien ganik deus gehiagorik idurik.

Adiskide izanen ditutzu, zure izanetarik edo goratasunetik zenbait probetxu usteko duteño: beheratzen bazare, ez darotzute gehiago begiratu.

Korreyitu nahiko zaituzte hei desohore bat ekhar diozoketen zure bizioetarik. Gañerakoan giristinotasunaren kontra izan arren, munduak laudatzen baditu; berek lehenik hetarat eramaten zaituzte.

Yakin zazu zer den egiazko adiskidea. Hark lagunzen du beharretan, kosolatzen penetan, argitzen gauza dudazkoetan; gidatzen egitekoe-tan eta xuxentzen errebelamenduetan. Guzien gañetik bere hitzez eta bere etsenpluez ekhar-tzen du eginbidien bethetzerat.

Ordean nekhez holako adiskide bat kausitzen da: zeren arraro baita adiskide baten hautua egi-ten dugunean, berthuteari begira diozogun.

Zeronek onets eta maita zazu berthutea, eta izanaraziko darotzu zure araberako adiskide bat. Hanits adiskidetasunek berehala badirurite fiñak

eta zin ziñezkoak; laster ordean hautsten dire,
zeren bizioa hetan balzaten baita.

Emozute zure adiskidei, eta heien ganik erre-
zibizazu etsenplu ona. Konzienziak utz ahal die-
tzatzuken konplezenzia guziak izan zatzu heien-
zat; ez detzatzula ordean behinere hartaz urru-
nago heda.

Zeronek ez dezazula deusere galde zuzen eta
arrozoñezko ez denik; eta guzien gañetik ez
detzatzula hek lausenga, zeroni ordañez hetaz
lausengatua izateko xedez.

XXVI. KAPITULUA

Esparantzaz, eta Jinkoaren probidenziaz

Jinkoa baitan ezartzen dugun esparantza da, haren perfekzionei bihur ahal diozokeguten ohorerik handiena. Zenbatenaz baita osoagoa eta erresalbagabea, hanbatenaz gehiago ohoratzen du.

Esparantza haren bidez ezagutzen dugu nahi duen guzia egin dezaken; eta ahalaren pareko borondate on bat duen izate soberano batenzat.

Hura da moien efetuzkoenatarik bat, hanitz grazia eta fagore señaletu zerutik ardietstekoa.

Mariak utzi izatu daroku berthute haren etsenplu bat baño gehiago. Jinkoaren gañean bere erreputazionearen arthaz pausatu zenean eman darokuna; guziz ikustekoa da.

Bere Virjinitatearen gardaritzat emana izatu zitzaioen esposak haren kontrako suspitxa bat hartzen du; hura utzirik ixillik gan nahi du. Maria ez da kexatzen; Jinkoaren baitan esparanzaz

bethea, idurikitzen du haren probidenziak lagun dezan.

Eta egiaz ez dio ezkaz egiten: Joseph gañetik argitua da. Sunsitzen dire haren duda guziak. Bere esposaren berthutearengat errespetuz bethea, behin bethikotzat harekin bat egiten da.

Hortik da ageri zein den progotxo Jinkoa baitan esparanza izatea, eta gure intrez guztiak haren eskuetarar ematea.

Esparantzari guziak zaizko aginduak, zeruko ihintza eta lurraren gozoa; denborako abantailak, eta eternitateko ontasunak.

Haragizko beso baten gañean pausatu nahi duena, mortuan sortzen den branaren pare izanen da. Ihartzea da haren zorthea.

Bañan bere esparanza Jaunaren baitan emanen duenak, iduriko du ur hegian den tantaia gottor bat. Haren ostoak haize bero guzien gerizean, bethi ferde izanen dire; eta bethi fruituak ekharriko ditu.

Guziek behar gaituzte ekharri esparanza izatera. Jinkoaren ontasunak, haren bothereak, agintzek, leialtasunak, gure beharrez duen eza-gutzak, gure herbaltasun propioak, gizonen ahal

eskasak; eta maiz heien traidorekeriaz egiten dugun experientzia egun orozkoak.

Beraz esparanza oso batekin haren probidendiaren ganat hel egizu, zure nahi gabe guzietan; nola nahikoak izan daitezzen. Errenkurra zare, jinkoak ez darotzula lagunzarik ematen zure atsekabeetan; idurikitzen du esparanzak haren oñetarat eraman zaitzan laguntza haren galdeiteko.

Duda gabe badaki zer estatu doloragarrian edireten zaren; ordean zure konfidentzia hartaz mintzo ez bazaio; inoratzen balu bezala egiñen du.

Gogoetari ematen zaizko, bihotza erortzen zaitzu Israelen Jinko bat ez balitz bezala. Helaz! maiz kexatzen, alarmatzen zare, esparanzazko akta batek zure arimarat gozoa eta deskansua ekhar letzaken denboran.

Zure dudetan, nahigabetan, hirriskuetan harzatzu neurriak; billakatzu moienak; galde zatzu argiak eta konseilluak; ordean guziak baño lehenago Jinkoa izan bedi zure sustengu lehenbizikoa.

Gizonek ez dute zure lagunzeko ez ahalik, ez argirik, ez nahirik, jinkoak ematen dioten eredu

baizen. Jinkoaren baitan ezarriko duzun esparanza ezin daite behinere sobratua.

Zenbat ere gizona herbala baita berenez, hanbat puxant billakatzen da Jinkoaren lagunzakerkin; haren baitan esparanza duenean.

Zure osasuna eraman darotzuten akzidentek, ez dute gutitu baxharrik hura bihur ahal diezazukenenaren botherea. Herioak goratu baderautzu zuretzat guzia zen presuna hura; ez darotzu galarazi hura zarabillan Jinkoaren sustengua.

Horriek nahi bagintu gogoan erabilli, ikus giñezake, Jinkoaren laguntzak ez darozula eskas egin; gure esparanza gutiaz hartaz indigne billakatu garenean baizen.

XXVII. KAPITULUA

Obedienziaz

Auguste Enperadoreak nahiz ezagutu bere botherearen hedadura, mana bat eman zuen, haren erresumaren bazter guzietan ziren yendien gizonki eta emakumen, larrien eta xehien kondatzeko. Maria eta Joseph Daviten leñukoak gan ziren Nazareth hiritik Betheleemerat bere izenak iskribuz arrolan eman arasterat.

Ez dire sartzen ea Prinzeak ordenanza hura ekharri duen intrezaren edo banaloriaren xede batez. Manua emana da: ezagutzen dute: hori asko da, konplitzen dute.

Enperadoreak Maria ezagutu balu erranen zioen lehenago asuerusek estherri bezala, lege hura etzela harengat egiña. Ordean guzientzat lege bat zen: obeditzen du beraz berzek bezala, oraño bertzek baño hobeki; zeren obeditzen baitu humilki, murmuranzarik gabe, pazienziarekin.

Mariak Prinzearen manuan ez du ikusten Jinkoaren nahia baizen. Obedienziak ez daki arrotz egiten: lano lanoa da. Deusek ez dio obedienziaren ispirituari hala kontra egiten nola guziak ikusi, guziak examinatu nahi dituen haragiaren araberrako zuhurtziak.

Zer nahasmendu ez liteke munduan, manatzeko susena gatenen ordenak, obeditu behar dutenez examinatuak izan behar balute?

Manu bat egiten darotzun lurreko nausi batek ez badu berak merezi zutaz obeditua izatea; merezi du zeruko nausi soberano hark, zeñaren ordeba baita.

Zuri manatzen darotzuna, egia da, tronpa ahal daite; ordean hari Jinkoaren ariaz bihurtzen diozun obedientzia bethi merezimendu handitakoa da haren ainziñean.

Sainduak badiote progotxu gehiago dela gauza mendreak obedientziaz egitea; ezen ez handiak gure nahi propioaz.

Munduko zuhurtziak zeren ez duen deus ikusten Jinkozko gauzetan, hirri egiten du bihotz obedienten lanotasunaz.

Zer kontu ordean egin behar dugu gizonen iuiamenduez, Ebanyelioa gure iuiamenduen erregelatzat hartzen dugunean?

Ez dire obediencia guziak merezimenduzkoak. Manatzen darotzunaren kondizione onen ariaz bihurtzen duzuna, osoki naturala da. Ez duzu haren saririk iduriki behar gizonen ganik baizen.

Asko maiz ere Jinkoa gatik egiten dugun obedienezian balsatzen dire hanitz huts eta inperfezione hari bere balioaren eta merezimenduaren parte bat kentzen diotenak.

Gure gogoaren araberako gauzetan baizen berehala eta bozkarioekin obeditzen ez dugunean, hobeki gure nahia egiten dugu bertzena baño. Ez da hori obeditzea, bañan bai gure buruben kontentatzea.

Egiazki obediencia den presunak, ez du luzamendurik ekhartzen manatua zaioenaren egiteko: eta ez da bere buruarekin erasiyan egoten manatu dioenaren kontra.

Liburu sailduiek irakasten darokute errespetuz betheak izaten gure nausien alderat nola

nahikoak izan daitezen, edo onak eta eztiak; edo gaitzak eta makurrak.

Ez giñezake obediencia hain nekhagarria kausi, orhoitzen bagiñe gizon bati obeditzen diogunean, Jinkoaren gatik egiten diogula.

Nahi propioa milla errebelamenduen ilhurriya da. Garaitiya edo bittoria segur du gizon obedientak. Obedienziak asko urrikitarik begiratuko gaituenaz landan, merezituko daroku Jinkoaren laudamendua.

LEHEN LIBURUAREN AKABANTZA

BIGARREN LIBURUA

Zeñetan konsideratuko baititugu
Birgina Sainduaren bizia eta berthuteak,
Betheleemen bere semea
mundurat eman zuenetik,
Kalberioaren gañean
guzien salbamenduarengat
bere bizia ematen ikusi zuen arterañoan

I. KAPITULUA

Pobreen zorionaz

ZERBITZARIAK

Birgina Saindua! plazerekin darabillat gogotan, zuk Betheleemgo heian Jesus mundurat eman zinduenean, zure ariman sentitzen zinduen bake eta sosegu perfet hura.

Aingeruen erregiñak ikusten du bere burua, artzain erromes batzu bere aldaketan. Sasoñen nausiaren Ama, kontent kausitzen da heia batean negu dorphe baten itsoz eta horma guziei paratua.

Bai, heia hartan milletan bozago eta kontentago ziñen zure pobreziazko estatuaz, Betheleemgo aberatsak bere izanez eta frankiaz ziren baño.

MARIAK

Hortarik ikhas zazu, ene haurra, zein kontu guti egin behar duzun lurreko ontasunez: eta

nola behar duzun prezatu zure estatua, hetaz gabetua zarenean.

Pobreak uste izan ahal othe dezakete bada, dohakabe direla; orhoitzen badire Jesusek nahi izatu duela haren Ama pobre izan zadin! Berak ez duela sortzean sehaizkatzat izatu manyatera tzar bat baizen; bere bizi guzian ez duela izatu non pausa bere burua, eta hilzean gurutze bat zuela ohetzat.

Ez ditu bere Apostoluak hautatu aberatsen eta iakinsunen artean; bañan bai erromesen eta inoranten artetik.

Ethorri da bereziki pobrei bere Ebanyelioaren ezagutarazterat, eta maite ditu erreaterañokoan hei egiten zaioenari begiratzen dioela, bere buruari egiña litzaiokeenari bezala.

Aberatsek arbuiatzen dituzte erromesak; ordean zorigaitz zuenzat aberats zaretenak erran duen Jinko berak, pobreak deitzen ditu bere sestiñerat.

Dohatsuak dire, dio Jesusek, ispirituz pobre direnak; heiena da zeruko erresuma. Hitz horiek hain ungi begiratzen diote bere izanei iosiak ez

diren aberatsei, nola bere pobrezia onesten duten pobrei.

Pobrek beraz behar liokete bere estatuari begiratu ez munduaren begietan duen aphaltasunaren eta baxesaren partetik; bañan bai Ebanjelioak hartan erakusten darokun handitasunaren partetik.

Erromesen artean ez liteke bakhar bat fedea balin balu, bere zorthea ganbiatu nahi lukenik munduko aberatsen edo dohatsuen zorthearekin.

Ene haurra, frankian ahantziko duzu zerua, lurrarekin iosia izanen zare, tentazioneak mutiriagoak, erorkoak husuagoak izanen ditutzu. Aberatstasunak gutzizatzen baditutzu, zure salbamenduarenzat zerere baita kaltekorrenik, hura gutziatuko duzu.

Alferrik zure bizian elkarrengainzka bilduko ditutzu ontasun handiak; hilzen zarenean ez ditutzu zurekin eramane. Heriotzeko orenean berthutea izanen da geldituko zaitzun ontasun xoilla; eta pobreziazko estatuak emanen darozkitzu berthutea pratikatzeko okasioneak.

Ebanyelioak aiphatzen darokun aberatsa, izan zen ifernuan ehortzia. Arbuiatu zuen Lazaro hil ondoan Aingeruen eskuetan Abrahamen galzarrerat eraman izan zen denboran.

ZERBITZARIAK

Birgina Saindua! irakatsi darotazu, pobrezia aberatstasunei perferatzekoa dela. Egizu hemendik harat ez detzadan billa zeruko ontasunak baizen, eta arbuia detzadan lurrekoak.

II. KAPITULUA

Pobrezia borondatezkoaz

ZERBITZARIAK

O Birgina Jinkoaren Ama zer ez zinduen sofritu behar izatu zure pobrezian! nihoiz etziñen hartaz errenkuratu; eta nihor etzen zure soleyitzeaz orhoitu.

Zertako ez zeññazkon Jesusi zure zorthearen garratstasunaz minzatu? Jinkoaren Amak asko izanen zuen hitz baten erratea; haren semeak ez zuen deus hari errefusatzekorik izanen.

Berehala zure zerbitzuko izanen zintuen Aingeru guziak. Ohorerik handienarenzat idukiko zuten zuri behar zintuen laguntza guzien bihurtzea.

MARIAK

Ene haurra, asko aberats da Jesus duena. Arima batek Jinkoa duenean bere ontasun bakarzat, konturik egin gabe begiratzen diote

mundu beher huntako izatei; eta bozik nahi du pobre izan.

Ikusten nuen Jesus zeruetako erregea, bere izatez aberats zena, gizonak bere pobreziak aberatsteko pobre egiña: ohore zitzaitan haren imitatzea.

Dohatsuak dire haren etsenpluaren arabera mundu huntako ontasunez billusten diren pobre borondatezkoak, haren amodioaren aberatstasunen eta zeruko ontasunen ardietsteaz baizen ez orhoitzeko.

Dohatsuak dire baldin Jesusen pare, atseginiñekin pairatzen badituzte pobreziaren efetuak; eta bere bihotzak osoki sueltatuak badituzte, bere usaiako usten diotzoten gauza beretarik ere.

Ordean perfekzinezko estatu hori besarkatu dutenen beren artean, hanitz dire heien estatuak galdeiten duen perfekzionetik urrunduak direnak.

Asko aldiatz, bihotza hain iosia da izan ahal detzaken gauza xumei; nola bailiteke handienei, hetaz gozatzen balitz.

Nola erran dezakezu Jesusen zat pobre egin zarela, aberatstasunen trabak eta nekheak gabe, hek ematen dituzte Aisiyak izan nahi dituztanean?

Jesusen Amorea gatik bere nahiz pobre billakatu direnek, hura kontsideratu dute Bethellemen sortzen, Nazarethen bizitzen, Kalberioaren gañean hilzen.

Etsenplu bera behar du kristau bakotxak segitu, ispirituz eta bihotzez bere aberatstasun guzietarik sueltatzen delarik.

Ispiritu Sainduak ez diote guziei erraten, uko egiozue zuen aberatstasunei: ez du guzien ganik perfezionaeren puntu hori galdeiten. Bañan guziei erraten daroe, ez detzatzuela heiekin ioz zuen bihotzak.

Jinkoak ezin bere erresuma pausa dezake lurreko ontasun galkorrei lothua den bihotz batean.

Jesusek lurraren gañerat ethorri denean ez dio bere buruari zorthe dohatsu bat egin munduaren arabera. Arbuiatu ditu hango aberatstasunak: arbuiagarriak dire beraz.

Lurreko ontasunak funtsgabeak, kaltekorrak ere dire: heien medioz eternitateko ontasunak erosten ez dituztenen zat.

III. KAPITULUA

Pobren alderako samurtasunaz

MARIAK

Ene haurra, maita zatzu pobreak. Atsegiñekin balia zaite hek bere beharretan laguntzeko izanen ditutzun moien guziez.

Molde hortan agertuko zare pobren ararteko izan nahi duen Jinkoaren ume digne eta egiazko bat. Ez du xoilki amoña egiteaz konseillu bat ematen; hura manatzen diote egiteko ahala duten guziei.

ZERBITZARIAK

Birjina Saindua! huntan oraño zure instruizio-nei iratxakitzen diozute zure etsenplua: zure zerbitzari handienetarik batk, Bonabentura sainduak, erraten daroku pobreak progotxatu zirela Salbatzailleari sorthu zenean, haren adoratzerat gan ziren hirur Erregiek egin ziotzoten presentez.

Bazirurien hetaz baliatu behar zinduela zure extremitatezko pobrezia hartarik atheratzeko; ordean estatu hura prezatzen zinduen, zure semearekin ematen zarotzun iduriaren ariaz. Daviten leñutik ilkia ziñen arren, nahiago izan zinduen zeruak sorarazi zintuen pobrezia eta ihuntasunean bizi.

Zure karitatearen eta lurreko ontasunez egi-ten zinduen arbuiuaren etsenplu miragarri bat eman darokuzu; zure pobreziaren arinzeko balia ahal zakizukena; erromesen soleyitzeko baliara-zi duzunean.

MARIAK

Zure frankiaz egin ahal dezakezun enplegurik hoberena eta ohoragarriena da, pobren lagun-tzea.

Aberatstasunak balin badituzu, orhoit zaite probidenzia hek eman darozkitzunean, heien partizalle; egin zaituela hetaz gabetuak direnen alderat.

Ez zaitzela izan aberats gogor eta abarizioz heien par, zeñek bere erraiak zarratuak baitituz-te bere anaien beharren gañean; eta nahiago

baitituzte hek miseriaz perituak ikusi, ezen ez heien fagoretan bere zerbaitez billuzi.

Ez dute bertze gogorik mundu huntakotz trezoren biltzea baizik. Bañan ethorriko da muga bat, zeñetan denboratik eternitaterat iragaten direnean; lo pisu batetarik bezala atzarriko baitire, eta bere buruak kausituko baitituzte eskuak hutsak.

Izan zaite aberats samur eta karitate egille heien iduriko, zeñek erromesen aitak billakatzen direlarik, ez baitute beldurrik amoña emateaz erromes daitezen.

Zer benedizione eta laudorio hañek ez dute errezibitzen lurraren gañean? Bada, preziatua-goak errezibituko dituzte zeruan.

Maiz hemen beretik bere bihotz onak pobretarat isurarazten dioten baten orde, Yaunak ehun, eta milla ere emanen diotzote. Eternitatean iduriki beharko dutenak, ihardetsiko dio haren aginzen hedadura guziari.

Zeruko atheak bere bekhatuez zarratu lituzketelarik ere, amoñak hek zabal diotzokete, eros ahal detzakete bere gaixtakeriak.

Zure buruari eginbide bat egiozu beraz pobren solleyitzeaz. Ez dezazula enzun behinere zuretzat asko izanen ez duzula oihuz egonen zaitzun intrezaren boz hura.

Zilhegi zaitzu zuhur izatea; ez ordean ez gogor ez abarizios. Non ez zaren zeroni pobre, ez dezazula uste izan dispensatua zarela amoña egitetik. Egizu zure ahalen arabera.

Hañitz baduzu, emazu hañitz. Guti baduzu, guti hura gogo onez parti zazu erromesarekin.

O Ene haurra! Ala miserikordiazko obrak egin izatu dituztenek, esparantza handia izanen baitute miserikordien Jinkoaren tribunalean.

IV. KAPITULUA

Meditazionearen premiaz eta abantaillez

ZERBITZARIAK

Betheleemgo heia, erran diezaguk, zer Mariak adiarazi zaroan, artzañak Jesus manyateran adoratzerat ethorri zirenean.

Edo o Birjina Jinko abaten ama! Zeronek hobeki erran diezaguzu zertaz orduan okupatua ziñen.

MARIAK

Ene haurra, trapu tzar batzutan troxatua manyatera baten barnean etziña zen Jinko iaio baten ikuskari espantagarria, zen neretzat; gogoeta eta erreflexionien funts ezin ahi zaiteken bat.

Ezin unha ninteken misterio handi haren meditatzen. Ikusten nuena, aditzen nuena, sigillatzen zen ene gogoan; eta han inpreñu bat barna barna egiten zuen.

Artzañak baño oraño gehiago nintzen espan-
titua obratua ikusten nuen mirakulluaz. Ene ari-
mako puxantza guziak objet handi hartaz ziren
okupatuak.

Milla amodioaren dardo ene bihotzetik bazio-
azen, ez ninzen gelditzen laudorioak eta bene-
dikzioneak guziz botheretsuari ematetik.

Nahi baduzu, ene semea, ukitua izan fedea-
ren objet handiez, hek behar dituzu gogoan era-
billi; eta atenzionerekin heien gañean meditazio-
neak egin.

Hanits Kristaben fedea ez da kelemelea, bai-
zik zeren ez duten artha, meditazionearen
medioz haren neurritzeko eta borthitzteko.

Zer hoben eta itsuskeria ez dugu lurraren
gañean ikusten? Egia eternalen ahantzmen-
dua da, heien ithurburua.

Maiz Jinkoaren perfekzionien eta munduko
gauzen funtsgabetasunaren gañean erreflexio-
neak egiñez; sainduak sueltatu dire creatureta-
rik; eta bere amodioa itzuli dute kreatzaillearen
alderat.

Exerzizio saindu hartan iksten zuten Jinkoa-
ren begietan handi dena baizen ez prezatzen.

Heien bihotzak berotzen ziren; eta hetarik alxatzen ziren su lama batzu osoki zerutikakoak, Jinko beraren baitan sunsitzen zirenak.

Ez dezazula beraz egun bakhar bat ere iragaterat utz zure arima salbamenduko zenbait egiez hasi gabe. Molde hortan ikhasten da sainduen iakintasuna.

Hañitzek bezala ez dezazula estakurutzat ekhar ez duzula meditatzekeo astirik: ez da denbora eskasten, bañan bai nahiya.

Erran behar bada, ez duzu munduan egiteko xoil bat baizen; hura da salbamenduaren egitekoa. Deus guti behar du izan; merezi ez badu, ez dezagun egun bat iragaterat utz hartaz orhoitu gabe.

Egun guzietz astia edireten duzu zure intrez denborako eta iragankorren gañean serioski erreflexionetan egoteko; bada othe da intrezik hurbillagotik ukitzen zaituztenik, eta zuretzat konsekenzia gehiagotako denik, eternitatekoak diren baño?

Ez dezazula oraño erran ez dakizula meditazionean egoten. Gai zare milla gauza funtsgabe-koen eta kuriostasun phuruzkoak direnen

gañean pensatzen egoteko; eta zure inorantzia eztakurutzat ekhartzen duzu fedearen eta eternitatearen objet handien gañean erreflexionien egiteaz kuestione denean.

Jinkoarenzat eta zure salbamenduarenzat duzun ezansiatasunaz baizen ezin utz dezakezu saindutzeko duzun moian puxant hori.

Ene haurra, bethi zure bizia ungi erregelatua izanen da, egun guziet hartzen baduzu denbora bat Jinkoaren ainziñean examinan egoteko ea izan behar zindukena, zaren harenzat.

Ez zare herioaz atzamana izanen, egun guziet ikhasten baduzu ungi hilzeko moldea.

Egun bakoitzean aldare edo gurutzefika baten oñetan oren erdi bat edo oren laurden bat bederen eramaten baduzu Jinkoaren handitasunen edo miserikordien, haren aginzen edo dixiduen gañean meditazio egiten; hañitzez iakin-zunago billakatuko zare, salbamenduardn szineziaz landan gañerako guziak dakizkiten gizon iakin eta sabantak baño.

Gizonari zer baliatuko zaio munduaren arabera progotxosak eta ohoragarriak diren argi eta ezagutza guziet bere ispirituaren aberatstea; ez

baditu sainduak izatu dituzten, eta sainduak egi-
ten dituzten ezagutzak?

Prestu eta jinkotiar billakatzeko, ez da asko
nahi xoillaren izatea; seriozki estudiantu eta hartu
behar dire hartako bideak.

Errekeri zazu Jesus, arren eman diezazun
grazia, exerzizio saindu harenzat duzun nakaz-
dura eta desgutuaren garaitzeko. Ispiritu gaixto-
ak ez du billatzen hartarik zure urrunarazten,
baizik zeren ezagutzen duen zein premiazkoa
den haren usaia.

Ez xoilki zure buruarenzat, bañan oraño
manera berezi batez zure artharen azpian diren-
nen gidatzeko abantail handiak hartan edirenen
ditutzu.

V. KAPITULUA

Jinkoaren legearen begiratzeaz

Mariak konzebitu zuen Ispiritu sainduaren berthutez. Ama billakatu zen, Birjina izatetik gelditu gabe. Zen baño garbiago egin zuen bere semea mundurat emateak. Ezin beraz hura begira zezaken purifikazionearen legeak.

Bizkitartean legean zarratua etzen arren, nahi izatu zuen hura begiratu: eta hanbat hertsitasunekin, non ez baitzuen huts egin puntu xoil bat ere.

Zirkonzisionearen legea iasan nahi izatu zuen. Jesusen etsenpluak, etzuen utzi bere pribiliaz baliatzerat. Obeditzen du luzamendurik gabe.

Etsenplu hori guziz gaia da Jinkoaren legeari obeditzeaz kuestione denean dugun uzkurtasunaren; eta obediencia berehalako eta oso bate-tarik gure buruben dispensatzeko billatzen ditugun aitzekia funts gabekoen konfonditzeko.

Estraino da izate soberanoari errefusa diozozugun gure azpiko direnen ganik hain zorrozki galdeiten dugun obediencia bat.

Hauts eta herrauts zarena, atrebitzen zare nausi guzietarik handienari, Jinkoari berari erraterat ezin obedi diozozukela: haren legeak zure herbaltasunari sopra galdeiten dioela! zer atrebanzia! zer bursudia.

Yaunaren uztarria pisuegia zaizu, berak erraten darokun arren ariña eta gozoa dela: eta hari preseratzen diogu mundu gogor eta tirano batena: zer ahalkatzeko arrozoin.

Munduari ematen diotzogu ditugun gauza baliosenak eta preziatuenak, hala nola adinaren florea, Ispirituaren zorroztasuna, bihotzaren samurtasuna, indarren eta talenduen sarrasotasuna. Jinkoaz denaz bezanbatean, harenzat alde ratzen ditugu munduak izateaz axolarik ez duen urthien ondarrak.

Egun oroz munduaren gogara egiteko itsutuki erortzen gare haren lege hirrigarrienerat, haren santesia guzietarat; eta Jinkoaz, nausi maitagarri hartaz denean kuestione, latz eta

gogor zaiku hari obeditzea; arrozoin billa gabilza haren uztarritik ilkitzeko.

Jinkoari zor diozun obediencia bihurtu baño lehen, edo zure buruari edo munduari konseillu galdeiten badiozu, ez duzu obedituko; edo bederen ez duzu egiñen erdizka bizen: zeren Jinkoaren legeak kontra egiten baitiote zure iaidurei eta munduaren legiei.

Etzaie ez haragiari ez odolari begiratu behar Yaunaren legea ukitzen duten gauzetan. Bethi gure naturalezak aisiyen billatzerat gakarzke; eta munduak, gure nahien baizen ez egiterat.

O nausi soberanoa zuk bakharrik duzu zuzena nahi duzun guzia egiteko guri kontu eman gabe. Ene bihotza zabal diozozu zure lege sainduari.

Zure hitzak saindutasuna eta zuzentasuna bera dire: ihintz gozo bat bezala ia utsaraz zatzu ene arimaren gañerat.

Zure Profetak bere Kantiko batetan adiarazten daroku bakhe frankiazko bat dela zure legea maitatzen eta begiratzen dutenen primeza.

Erraten daroku hark zuhurtzia ematen daroela tontoenei: egiazko zorionerat daramala; biho-

tzetatik tristezia, ispirituetarik ilhunbeak desterritzen eta sunsiarazten dituela.

Gutiziatzekoagoa dela urrea eta ioia preziatuenak baño, eta ixitzen duela esirik deliziosenaren gozotasuna.

Berri berritan hartzen dut gogo behinere ez hartarik apartatzeko. Finka zazu Yauna ene gogo hura.

Lege saindu hura begiratuko dut azken hatserañokoan, ene begietan; artharekin iduki nahi dudan primeza aberats baten pare izanen da behin bethikotz hartaz egiten dut ene bozkarioaren objeta.

VI. KAPITULUA

Etzenplu onaz

Mariak begiratzen du Purifikazionearen legea, Birjina zela iñoratzen zuten Yuduei eskandalaren bide bat ez emateko.

Ez dezazula utz obra edo akzione bat premiazkoa ez izan arren, hura egin gabe usteaz, norbeit eskandaliza badaite.

Meditazione karsuenean baziñaudez ere, berehala alxa zaite; hori da Jinkoa Jinkoarenzat uztea.

Jinkoa maite denean billatzen da hari bihotzen irabaztea. Nihoiz ordean etzaizko hobeki irabazten, gure etsenplu onez nola behar den maitatu; bertzei irakasten diote egunean baño.

Berthuterat norbait gonbidatzen dugunean prezarazten dugu berthutea; ordean gonbiduari geronek pratika iratxakitzen diogunean, hanitz hobeki sinhetsiak gare. Sainduen etsenpluak egiten ditu sainduak.

Apostoluek eta lehen mendetako fidelek egiten zituzten berthutezko obrak. Heien hitzak mirakulluak bezain puxantak ziren Ispirituen argitzeko eta irabazteko.

Oi egun zein guti diren Kristaben artean berthutezko etsenpluez Jesu Kristoren urrin ona direnak.

Iduri du gizonak ez dutela elkhar bantatzen batzuek bertzak damnazionearen bidean saraizteko baizen; elkarri ematen diotzoten etsenplu gaixtoez.

Nahi baduzu damnatua izan, bakharrik damna zaite. Ez dezazula ordean galaraz anaia flako hura zeñarenzat Jesu Kristo hil izatu baitu.

Zure lagunari lurreko ontasunen goratzea hoben bat liteke. Zer izanen da beraz hari eternitateko ontasunen goratzea? Hori da Debruekin parzurer izatea.

Beregainki zenbait nausitasunez bestituak direnek, artha behar dute izan etsenplu onen emateko; zeren heien azpiko diren presunak, heien gañean moldatzen baitire.

Artha hura berziki behar dute izan yende handiek. Jinkoren eta Elizaren legenzat errespe-

tu gabe badire, laster bertzez segituak izanen dire. Yende xehiek uste dute ohore bat dela halakoen etsenpluak imitatzea.

Maria Jinkoaren Ama ganik behar dute ikasi bere herrunka goraz baliatzen hartarat alxatu dituen Jinkoaren ohorarazteko.

Handitasuna ez da zuzen bat giristione ez izateko. Goratasun handiago bat ez da funtsean obligazione handiago bat baizen.

VII. KAPITULUA

Beheramenduen amodioaz, eta balioaz

O ene Jinkoa! nonbeit zure Ama sainduarenzat humiliazio handi bat izatu behar zen bertze Am,a komunekoentzat baizen egiña etzen Purifikazioneko legearen begiratzea.

Etzuen ordean iñoratzen beharamenduak eta laidoak egun batez izan beharko zutela zure parte: hala dohatsu bere burua itxiki zuen hortan zure iduriko ahal izatea.

Zenbatenaz bertze emakumez gorago alxatu baitzinduen, hanbatenaz zuen atsegina bere buruaren ezdeustatzeaz; eta bere pribilioen gerizatzeaz.

Mariak bezala bere Jinkoaren gogara egitea baizen billatzen ez duen arima batek, kasu guti egiten du yenden estimuaz. Gutti sentitzen ditu heien errespetuak.

Profeta batek dioen bezala nahiago du Yau-naren etxean beheratua egon; ezen ez mendeko

umien ohore eta distiaduraz bere burua inguratu ikusi.

Eta egiaz berthutea hobeki dago segurean estatu humil eta aphaltan; handitasunen erdian baño. Gizonen begiei gordea badago, hanbatenaz gehiago izarniatzen du Jinkoarentan.

Egiazko berthuteak ez du ikusia izan nahi Jinkoaz baizen. Izan dadin ahantzia, arbuiatua ere; dohatsuago dauka bere burua.

Yustuen gañean erne dagoen Probidenziak, maiz beheramenduen medioz hek eramaten ditu merezimenduen eta loriaren apherikurat.

Duda gabe nekhez iasaten du amodio propioak aphaltua izatea; ordean hargatik da beheramendua salbagarriagoa. Sainduak Jinkoari grazia handi batez bezala eskerrak bihurtzen ziotzoten, pairatzen zituzten laidoez.

Ah! ez baditut heien sentimendu berak, enaiz orako gizon¹ haragizko eta lurreko bat baizen: ez dut Jinko xoilla billatzen.

Izatu ere dire sainduak Jinkoari beheramendu handiak galdetu diotzotenak; hanbatetareñokoa zen perfet izateko zuten gutizia.

Ez badiot nere buruari senti heien animo bera, bederen ixil ixilla behar ditut errzibitu galdetu gabe ene onetan egortzen darozkidanak.

Jinkoari ohore gehiago bihur diozoket haren nahiei zordiotedan errefinazionearekin beheramenduak iasanik; dohain gorenez berez baño.

Apostolua mintzo den bezala Jinkoaren semea aphaldu da ezdeus bat billakatzerañokotan. Horra ahalaz segitu behar dudan etsenplua.

Beheramenduen hinguinza da, Jesusekin ematen daroluten diruiaren hinguinza.

Jinkoak hek nere baitan emendatzen baditu, hori heldu da zeren nitaz egin nahi baitu bere semearen imayina perfet bat.

Beheramenduak behar nituzke errezibitu gurutze egiazkoaren zathi bat errezibi nezaken bozkario eta ezagutza berarekin.

VIII. KAPITULUA

Nola behar diotzogun Jinkoari egin, Galdeiten darozkigun sakrifizioak

ZERBITZARIAK

Amek bere ume lehenik sorthuez Jinkoari bere tenpluan egiten zioten ofrimendua, guti gostatzen zitzaien. Ordean Birjina saindua! zuk Jesusez egin izan zinduen, egiatzko sakrifizio bat izatu zen zuretzat.

Baziñakien egun batez bere bizia gizonen salbamenduarenzat eman beharko zuela; eta ia, Jinkoari ofrendatzen ziñoen biktima bezala.

Hura izan zen Jesusen biziaren azken hats korañokoan pairatu behar izan zintuen pena eta estresen lehen mementa bezala.

Ordudanik zure arima hasi zen, Simeon Jesus bere besoetan zauzalarik mintzo zen, dolorezko ezpata hartaz zilhatua izaten.

Lurreko amek bere umeak maite dituzte, ez ordean bere amodio guziak heien baitan pausatzerakoan. Zenbat edituzte aldaratzen banita-

tearenzat? zenbat bere buruenzat? bañan, zuk Jesus maite zinduen; maite zinduen zure bihotz guziaz; eta etzinduen hura baizen maite.

Zure ume baxharra zinduen. Doi doia hasten ziñen Ama izaten; eta halako haur baten Ama izateaz zinduen bozkarioaren guztatzen. Bizkitartean bere Aitari haren ofreitzerat gateko eguna ethorri denean berehala abiatzen zare; bideari ematen zaizko.

Abrahamen alaba paregabea, haren fedearen funta; mutuarazten, ithotzen dituzu zure baitan naturalezak sorarazten dituen sentimendu samurrenak, munduan maitien duzunaz sakrifizio bat galdeiten darotzun Jinkoaren boza baizen ez enzuteko.

MARIAK

Ene haurra, ni bezala trebe eta ieneros izan zaite Jinkoak zure ganik zerbait galdeiten duenean zer nahi izan dadin.

Helas! nahi izatu du sakrifizio bat egin niozan arrosoñekin maite nuenaz: ordean zu ganik zer galdeiten du ardura? higuindu behar zintuzkenen sakrifizioa.

Jinkoa maite baduzu, ienereostasunak behar du izan zure amodioaren karaktera berezia. Bihotz hertsia batek, ez daki hanitz; zer den maitatzea.

Zerbait nekha gaitzakeni lothu nahi ez gaizkoenean Jinkoa gatik; garaitu behar diren gaiztasunen bistan gogo urritzen gerenean; ez dakigu maitatzen.

Amodio egiazkoa señalatzen da gudueta eta doloretan. Minberatasuna ez da konpuntzen Jesusen dizipulu baten sentimenduekin eta kondizionearekin.

Nahi dituzu zure sakrifizioak Yaunaren gogara egin? Egitzu laster, eta heien egitea zer gosta behar zaitzun, pensatzen egon gabe.

Munduak sakrifizio gaitzenak eta gogorrenak nahi ditu bere esklaboen ganik, minzatzea asko du; berehala eta osoki egiten zaizko. Jinkoa izanen da bada nausi xolla, zeñarenzat ez baitugu sakrifiziorik egiñen; ainzinetik examinatu gabe ea ez othe duen sobra galdeiten?

O ene haurra! ala Jinkoa guti maite baitugu, eman nahi ginotzoken gure amodioaren señalatan, eremu batzutan baratzen garenean.

Ez, egintezke mentura, fantesiaz batzen gobernatzan ez den; intrezez baizen maitatzen ez dakien munduari, Kristau gehienak Jinkoari ofreitzerat atrebitzen diren bezalako bihotz baten eskaintzerat.

Bere Aitarengat hertsiki manatua zaioen hura baizen egin ez lezaken ume bat; zerbait gosta behar zaioen pontutik bere esposari damu egiteaz axola ez luken espos bat; ez dire amodio zin zinezko baten frogak. Jinkoa infinituzki ona, samurra da bere kreaturen alderat; ordean dnborra berean Jinko ieloskor bat da.

Ez da, galdeiten eta merezi duen bezala zerbitzatua; non ez den zerbitzatzan bihotz perfet, eta haren nahi guzietarat eroria den batekin.

Ahalka zaite haren zerbitzuan hain nagia eta gogo urria izateaz. Ahalka zaite zuretzat hanbat egin duen ondoan; zuk harenzat hain guti egiteaz.

Batzuetan manu gaitzegiak ematen darozkitzula zaitzu, zeren haren sariak merezitu behar baitituzu.

Galde ahal dietzatzuke zure ontasunak, ohorea, osasuna, bizia bera, guziak zuzenez zor zaizko.

Ez dezazula mirets baldin ematen diozun eredurara oraño gehiago galdeiten baderautzu; ez du hori egiten, baizik hemen fagore handiagoen errezibitzerat zure preparatzeko, eta zeruan sari eta golardo hautetsiago baten mereziarazteko baizen.

IX. KAPITULUA

Zer disposizonekin behar diotegun begiratu, gertha dakizkiguken gaitzez

MARIAK

Ene haurra, zeri egiten ditzotzu nigar horiek. Zerk atheratzen darozkitzu zerurat hedatzen ditutzun hagorapen min horiek?

ZERBITZARIAK

Helas! sailduen erregiña, zenbait soseguz gozatzen hasten nintzen; eta huna non kolpe kolpez aurkitzen naizen alarma berri batzutan.

Inyustizia, pensu gaixtoak, eskergabetasuna berritan aspertzen zaizkit. Ama samurra othoi zure umeari emozu zure protekzionearen laguntza.

MARIAK

Ene haurra edireten zare bada han nonbeit, tenpluan Simeonen oraklea enzun nuenean kau-situ nintzen estatu beran.

Jesusen ethorkisuneko handitasunaz minza-tzu zitzaitan ondoan, adiarazi zarotan perseku-zioinei eta kontrestei paratua izanen zela, eta dolorearen armak ene arima alde batetik ber-tzeat sillatzen zuelarik; partalier izanen ninzela ene semeak iasanen zituen gaitzetan.

Liburu sanduek bertze alde argitu ninduten Jesusen sofrikarien gañean. Abel hilla, Joseph saldua, David persekutatua, bazkoko bildotsa imolatua; hanbat figura ziren hari gerthatu behar zitzaioena konprenitzerat ematen zarotedanak.

Ah! zer kindu eta kirestasun ene biziaren gañerat etzuen hedatzen bethi bistan nuben Jesusen tromenten eta horiotzearen ikuskariak?

Zer haben eta plañu ene barnetik etziren atheratzen, Jesus ene blharren kontra nauk ala-rik; orhoitzen ninzean ez zuela mundua salbatu behar heriotze kruelenaren bidez baizen?

Tenpluan ikusten nuenean bildots bati zinzu-rak egiten ziotzotela, edo uso bat ithotzen

zutuela: nere buruari erraten nioen, molde hortan izanen da egun batez Jesus sakrifikatua.

ZERBITZARIAK

Konprenitzen dut, o Birjina Ama, zein doloragarria behar zen izan zure estatua; Elizak zuzenean deitzen zaitu martiren erregiña.

Martirek izatu dituzte buruak ebakiak, izatu dire bestia errabiatuen manerat utziak. Hetarik batzu peritu dire subaz, bertzeak uraz, ordean gehiengan heien oinhazeak ez dire luzeak izatu, zuriek iraun dute hogoi eta hamar hirur urthe.

Eta denbora hartan guzian animoz eta indarrez bethea, martir guziak baterat emanik baño gehiago; kantitua izan gabe ikusten zintuen Jinakoak preparatzen zarozkitzun sofrikari bethi berriak, eta beregainki egun batez Kalberioaren gañean iasan behar zintuenak.

Nitaz denaz bezanbategan, herbaltasuna, laxokeria bera baizen ez naiz; gertha ahal dakizkidaken gaitzen eta sofrikarien bistan.

Zure dolorea bethi eta bethi erreberitzen balin bazen Jesusek pairatu behar zituen trementez orhoitzen ziñenean; halaber bethi eta bethi

erreberitzen zinduen, tenpluan hartaz egin zinduen lehenbiziko sakrifizioa.

Zure arima tristezia pisuenean balin bazen, etzen hargatik haren sosegua batere nahasiya. Obedienzia osoenarekin nahi zinduen Jinkoak nahi zuena.

Eta ni latzten naiz ez leytizen darozkidan gurutze berriei begiratzen diotedanean. Ez dut gehiago sosegurik eta deskansurik. Ene Ispiritua bursudian ematen; ene bihotza errenkuratzen da.

MARIAK

Ene haurra, Jinkoak ez du nahiko izan zaitezzen zure ahalez gorago tentatua, afliyitua, bethi laguntza neurthuko du frogaren gañean.

Enzun zazu ia mintzo zaitzun haren grazia, iharts diozozute haren mobimenduei, zenbate-naz Jinkoak arima bati gurutze gehiago preparatzen baitiotza, hanbatenaz orobat aldaratzen diotza heien ungi iasateko moienak.

Jinkoak bere kreaturei egin ahal diotzoketen present aberatsenak dire gurutzeak. Hala nola

hek kreatzailleari egin ahal diotzoketen sakrifizio agradagarrienak baitire heien bozik errezibitzea.

Aldaratzen darozkitzunak handiak dire; erran nahi da zu sainduarazteko gogo handiak dituela; nahi othe ziñokete bada Jinkoaren desenuai trabariak ekharri.

Zure errenkurek ez dituzte gurutze hek zureganik urrunduko, zer nahi egin dezazun, beharko dituzu iasan. Zein da beraz zuretzat partida zuhurrena?

Hura da, ene haurra, Jinkoak ordenatuko duen guzietarat erortzea. Yauna nausi da, behar duzu erran, nitaz egin dezala ungi zaiोजना.

Eta ikusiko duzu bere agintzei leial den Jinkoak zure sumisioneaz ukitua; uste duzun baño ariñagoak billakatuko darozkitzula, urrundik hain pisuak iduritzen zaizkitzun gurutzeak.

Arinduko darozkitzu zure buruari erraterañoan: zenbatenaz Jesusen sofrikarietan parte gehiago baitugu; hanbatenaz dugu orobat Jesusen sofrikarietan parte gehiago, baitugu; hanbatenaz dugu orobat Jesusen bidez heldu zaizkigun konsolamenduetan.

ZERBITZARIAK

Eskerrak darozkitzut, ene ama maitea ematen darozkidatzun lezionez. Ernatzen dute ene langiadura eta gogurritasuna.

Ah! zuk ematen darotazu ene baitan sentitzen dudan indar berri bat, lehenago latzdurarekin baizen begiratzen ez nioten gurutzien biderat animorekin gateko.

Benedikatua bedi ene Jinko Yauna. Hark bere Ama sainduaren lezionen bidez ene eskuak eskolatzen ditu guduko: eta irakasten darot, nola behar dudan iasan gerla bat zeñetan galdua baininteke, hartaz lagundua ez banintz.

X. KAPITULUA

**Nola arima batek behar duen egin,
eta zeñ sentimendu
behar dituen izan;
Jinkoak haren alderat daukanean
ezin konpreni dezaken
konduita bat**

Jinkoak kolpe kolpez Mariai adiarazten dio Yosepen medioz, Jesus iaioa gerazatu behar zaioela Herodesen fuliari; eta abiatu behar dutela Ejiptorat.

Zer bada, bothere infinitu bat duen Jinkoak ez du bada ahalik Prinze haren bihotzaren gantziatzeko? ez da bada Jinkoarenzat ahalkagarri gizon herbal baten beldurrez ihesigatea?

Ezin bada Jinkoak Jesusen fagoretan erreberri dezake, bere Populua salbatzeko Ejiptoari iasari ziotzan zigorraren mirakullua?

Ah! Mariak ez du billatzen Jinkoak haren alde rat daukan konduitan dituen gogo eta diseñuen konprenitzea.

Jinkoaren nahiyek orobat dute merezi gure sumisionea, edo heien arrosoñak konpreni detzagun, edo ez detzagun.

Non kausituko du zertaz bizi desertuen erditik egin behar duen biala luzean, eta egortzen duten herri arrotzean? ez du hori examinatzen.

Abiatzeko manua ematen dioen Jinkoa bera asko botheretsua da, bizitzeko ahalen hari aurkiarazteko, hek ikusten ez dituen arren.

Ez du galdeiten ea bethi Ejiptoan egon behariko duen; handik bihurtuko da; Jinkoak muga dela ezagutarazten dioenean.

Jinkoak eman liotzoke oraño, gutiago konpreni letzaken manuak; haren arimak deusere ez bailezake gal bere sosegutik.

Zertaz daiteke kexatua arima bat dakienean Jinkoak gidatzen duela? bada lagunzarik probidenziarena baño seguragorik?

Manatzen darotazu, Yauna, ezagutzen ez ditudan bide batzutan ibil nadin; hori asko da zure nahiyak argiaren eta arrosoñaren lekhuia ixikiko darot.

Norat noan ez dakit; segur naiz ordean behin ere urrats falsorik ezin egin dezakedala zu

bezain gidari zuhurraz nere burua erabilzerat usten badut.

Ilhunben erdian asmurat nabillan arren, deskansuan naiz; zeren baitakit ez nauzula abandonatuko.

Eta zerenzat baliya lakizket ene argi eta eza-gutza mendre eta flakoak, zeronek zabaltzen darotazun, eta obediencia itsu batekin segi dezadan manatzen darotazun bidean? minzatu zaizkidan pontutik; behar natzaio lanari lothu, nere burua enzun gabe.

Zuhurzat eta iakinizat daukagun gizon baten menerat oso osoak ematen gare; eta bada, o zuhurtzia eternala, izi izanen naiz zuk zeronek gidatzen nauzunean?

Maiz zure probidenciari laket zaio osoki kontrarioak diruriten moien batzuen bidez bere xedaterat helzea. Hala, nahi bezanbat espantagarriak diren arren ene gañean dituzun deseñuak; heien adoratzear kontent izanen naiz. Nik konpreni dezakedan baño gehiago egin ahal dezakezu.

Zure konduita gordea izan arren, ez da gutiagoragorria. Zure manuenzat, heien motibo-

ak gutien konprenituko ditudan denbora berean; nahi dut izan, irakatsi darozkidatzun egienzat dudan sumisione bera.

Egia hek ene izpirituaz gorago diren arren, hetaz bizkitartean gehiago naiz seguratu klara ikusten banitu baño; zeren, Yauna, zu zero-ni minzatu baitzare.

XI. KAPITULUA

Probidenziak iustuen alderat duen arthaz

ZERBITZARIAK

Birjina obedienta! bozik gogoan darabillat Ejiptorat gan behar izan zinduenean, zure ari-mak zuen sosegua eta berdintasuna.

Baziñakien bide guzian Jinkoa zure gañean atzarriya egonen zela; eta ezleyitu zarotzun lek-hurat heldu ondoan, han ez zintuela laguntzarik gabe utziko. Ezen nola bere begiak karratuak iduk zetzaken zure, eta karguz eman zarotzun altxagarri sakratuaren gañean?

Ez ez ez zintuen beldurtu behar gabazko arteak, ez eta ere egunaz zure kontra etzaiek etxa ahal zetzaketen dardo hilgarriak.

Yaunak bere Aingeruak egorri zituen zure begiratzeko; manua zuten zure urrats bakoitzean leialki zure segitzeko; hirrisku guziak zu ganik aphartatzeko; eta behar bazen bere eskutan zure eramateko. Dañurik gabe ibilliko zare suge

biperaren gañean; eta oinpean erabilliko ditutzu lehoña eta haren sugea.

MARIAK

Ene haurra, Yaunak ber liburu sainduetan agintzen du, lagunduko dituela haren baitan bere fidanzia emanen dutenak.

Behinere ez zaitzela nahasiya eta trublatur izan Jinkoak emanen darozkitzun manuen ariaz, nahi bezanbat gaitzak iduri dakizkitzun konplizteko. Haren baitan izan zazu esparanza, eta lagunduko zaitu.

Haren nahiari obeditzeko behar bazindu ere erori erromeskeriarik handienerat, guziez pausa zaite haren artharen gañean: haren probidenziaz ez zaitu deusen eskasean utziko.

Behar bazindu ere izan gaixtagiñen hirri, trufa eta persekuzione guziei paratua; ez deza zula gogo gal. Jinkoa izanen da zure sustengua atsekabearen denboran.

Arima iustuek haren baitan duten fidanzia, da haren laguntzaren fiadorrik segurena. Aldi batzuz iduri badu usten dituela; azkenean ediren arazten diote sosegua.

Bethulia hiriko iendakiek etzuten gehiago deus idurikitzen bere arbasoen Jinkoa ganik, nihoiz baño gehiago bere probidenziaren begiak heien gañean idekiak zauzkan denboran.

Joseph garbia etzen ahantzia izatu. Presondegi beltz baterat kondemnatua, nigarrez dago bere sepoetan. Kolpe kolpez handik atheratua da, erregeren tronuaren zahetzerat altxatua izateko.

Ez da bizkitartean erran behar, bethiere probidenziak arima iustuak beldur eta hirrisku guzietarik begiratzen dituela: ez eta ere bethi hek nahi duten eta galdeiten duten moldean heien behar guziez kontu daukala.

Bañan haren konduita ez da gutiago miragarria, nahiz athera detzan bere beharretarik, edo han utz detzan: nahiz mendeza detzan hei egiten zaizten inyustiziak, edo konsenti dezan billaka daitezen heien biktimak.

Jinkoak ematen daroe bere gaitzetan pairakortasunaren grazia, eta hura emanik gehiago egiten du heien fagoretan ontasunez eta nahikarez bethetzen balitu baño.

Zenbat kristau ez dire guziak eskas dituztenak eta deusen eskasik ez dutela diruritenak? hain dire kontent bere estatuaz. Probidenzia benedikatzen dute, eta bere zorthea ez lezaketegantzia mendeko dohatsuen zorthearekin.

Yauna ganat beraz hel egizue zuen beharretan; haren gañean pausa zaitetze. Haren ganik izanen dituzuen laguntzak bethi ageriak ez izan arren, ez dire gutiago egiazkoak eta konsolagarriak izanen.

XII. KAPITULUA

**Ez dela munduan estaturik,
zeñetan ezin Jinkoa zerbitza
baitezakegu,
han nahi gaituen pontutik**

MARIAK

Ene haurra, zerenzat dituzu errenkura horiek zure estutuaren gañean? ezin, diozu, han Yauna zerbitza dezakezu zerbitzatuia izan behar duen bezala.

Zerua zure estatu berean saindutu diren presunez bethea da. Ejiptorat gan ninzenean han Jinkoa aurkitu nuen iuduen artean ediren nuen bezala, eta molde berean haren zerbitzatzerat enseiatu ninzen.

Guzietan begiratzen badituztu Jinkoaren grazia eta adiskidetasuna; guzietan kontent behar duzu izan. Iduriz Ioseph ene Esposari eta niri hañitz gusta behar zitzaikun Israelgo bazterren ustea; bizkitaratean ez ginduen nakazdurarik batere erakutsi.

Berriz harat deithuak izan giñenean, ez ginduen bertze bozkariorik agertu; guzietan gure erregela xoilla zen Jinkoaren nahiaren konplizteaz landan.

Billatzen ez baduzu zure nahi propioaren egitea, aita zerukoak eman zaituen estatuaz kontent zarelarik; ez duzu bertzerik gutiziatuko.

Jinkoak baxotxari esleyitu dio saindutasunerat iduki behar duen bidea. Enganatzea liteke, bertze bide bat harturik saindu izaterat pretenitzea.

Graziaren laguntza gabe ezin saindu izan zaitezke, bada Jinkoak grazia hura baxhotxari ematen dio premiya duen neurriaren arabera.

Komentuan sartzen denak ez du urrikirik behar mundua utzi izateaz; hala nola munduan engaiatua denak, ez baitu erran behar ezin han salba daitekela. Bataren eta bertzearengat estatu segurena da, Jinkoak hek ikusi nahi dituen.

Non, edo nola nahi izan zaitez; salbamendua iratxakia da graziari ihardetstekoa izanen duzun leialtasunari.

Joanniz Baptista saindutu da Yordango arriberaren hegian. Zeren Jinkoak nahi zuen han

egon zedin; etzuen billatu handik ilkitzea Jesusi zarraizkon Apostoluen bizitze mota etzitzaioen gaiago iduritu saindu billakatzeko.

Ez, zur estatua ez da berenez traba bat saindutzeko. Ez lekhuak, ez enpleguak ez dute gizona saindutzen; gizonari dauko heien santifikatzea.

Maizago kexagunez ungiaren amodioz baño hobeki beiak etxatzen dituzu zure estatutik diferente den bertze estatu baten gañerat.

Zer irabaz ziñezake haren ganbiatzeaz? ez zintezke hobeago tokiz aldaraturik eta bertze kondizione bati lothurik, ez zintezke hargatik umorez eta karakteraz ganbiya.

Lekhu guzietarat zurekin batean garraiatuko dituzu zure bizioak. Zure baitan, ene haurra, behar duzu ganbiyatu, ez zure estatuan, ez zure enpleguan.

Sainduki zure lanak egitzu zure estatuan hek Jinkoari hedatzen diotzotzularik, eta ez zare errenkuratuko barraiatzen zaituztela.

Erresuma handi baten gobernuari darraizkon lan ostiek, etzuten David gibelatu othoitzari

iarraikitzetik; eta egun bakoitzean zazpi aldiz Yaunaren laudorioak kantatzetik.

Lanen nonbreak sailduak gibelatzetik urrun saildu billakatzetik, bere saildutasunak berak gai egiten zituen bere eginbideak ungi bethetzeko.

Saildutasuna ez datza nahi dugun lekuan eta moldean Jinkoaren zerbitzatzean: bañan bai hark berak nahi duen maneran.

Gehiago Yauna lorifikatuko duzu oinhazekin ohe baten gañean zarenean, haren nahiya balin bada han izan zaitez; ezen ez hari arimen irabazteko xedez, zure burua nekhez ahituko duzue.

XIII. KAPITULUA

Jinkoaren zerbitzuan behar dugun kharraz

ZERBITZARIAK

Maria Saindua! ezagutzen ditudan zure bizio zirkonstanzia guzietan ematen darozkidatzu deboziorik gabearen etsenplu hadienak.

Deboziorik gabe hark zifaramatzen urte guzietan Yerusalemerat bazkoko besta handia han egiten zutenean. Harat goateko obligazioak Joseph zure esosa baizen begiratzen etzuen arren, hari iarraitzen zifairikon.

Jinkoaren zat zinduen amodioa sobra zen beroa, eginbide hertsia eta premiazko batetan xoilki zu gelditzeko.

Helas! naizen bezalako arima eskergabea, bertzela ni bizi izatu naiz Jinkoaren alderat. Haren ungi egin guzien despit, ez dut haren zat izatu bihotz bekhasti bat baizen. Nausi baten oñean manatu behar izatu darot obedituia izateko; eta en homaien ardietsteko.

MARIAK

Ene haurra, Jinkoa maite duen bihotz batek haren gogara izan daitezken gauzetarik deus ez du egin gabe usten.

Ez duzu hanitz ezagutzen zer duen merezi zerbitzatzen duzun nausiak; haren alderat labur izan nahi baduzu.

Ikusazu zer mundutarrek egiten duten munduarenzat; eta ikasiko duzu zer behar zinduken egin Jinkoarenzat.

Begira diozozu heien lehiyari, ez dituzte guphideste ez penak ez nekheak haren zerbitzatzeko; haren gogara behar denean egin, milla milla bortxa bere buruei egitarat erotzen dire.

Bañan denean kuestione Jinkoari agrada-tzeaz, nausi soberano hari zure amodioaren zenbait señalen emateaz; hori da zure begietan nekhe handiegi bat, harenzat zuri zenbait atenzionen galdeitea; da, zuri sobra penen galdeitea.

Ez da bada ahalkagarri, zuretzat mundutarrren eskolarat egor zaitzaten heien ganik ikhas-teko, nola behar duzun Jinkoa zerbitzatu?

Ah! ez dezazula sofri mundua banta dadin khar eta zelo gehiagorekin bere esklaboez zerbitzatuaz izateaz, kristaben Jinkoa den baño haren ume izateaz profesione egiten dutenez.

Ez zare, beraz hemendik harat kristau heien balsako izanen, zeñek uste baitute debozione hanitz badutela, Jinkoaren legeak punimenduren penan manatzen diotena hertsiki konplitzeaz kontentatzen direnean. Hañek Jinkoa maitatzen duten baño gehiago beldurtzen dute.

Ene haurra, bere gastigutan ikharagarria den jinko hura beldur zazu. ordean beldur izan zaite hain samurra, hain maitagarria den Jinko hura ez duzula asko maitatzen.

Adiskide batek bere adiskide bero eta karsu batenzat iduk othe zintzake, harenzat egiten ez bazindu adiskidetasunak baitezpada galdeiten duena baizen?

Yenerosa da amodioa, ez da hura baratzen premiaz egin behar diren gauza xoilletan. Ungi maite dugunean, gogara egiteko atiza guziez baliatzen gare.

Jinkoarenzat bazindu amodio karsu karsu bat, harenzat egin ziñezakena, egin nahi zindukenaz gutiago liteke.

Ungi maita zazu; eta amodioak nekhea arinduko darotzu. Jinkoak arima karsu baten gañerat hedatzen du ganzadura bat; gehien gostatzen zaizkon gauzetan delizioak kausiarazten diotzona.

ZERBITZARIAK

O ene Ama samurra! zure umeari ardiets diotzozu mintzo zaizkidan khar hura, zeonek hain etsenplu handiak eman darozkidatzun ondoan.

Aithortzen dut ahalkeriarekin, traba mendrenak baratzen nau; desgustuaren edo unhaduraren lehenbiziko tentamenduari amor ematen diot, maiz yenden erranen beldurrak gelditzen, eta graziak inspiratzen darotanaren egitetik gibelatzen nau.

Ikusten duzu nolako beharra dudan bihotza alxatua izateko. Oxala bada zure leziona salbagarriek ene bihozean pitx balezate amodio karsu hura, zeñarekin baitu merezi zerbitzaturia izatea, karitatea bera den Jinkoak.

XIV. KAPITULUA

Nolako zorigaitza den, Jesus galtzea

Jesus hamabi urthetan zen, Maria eta Joseph bere usantzaren arabera bazko denboran Yerusalemerat gan zirenean: bere buraso horiei iarraiki zitzaien.

Phesta burua iragan zen ondoan Maria eta Joseph bihurtu ziren Nazaretheko hirirat. Jesus baxharrik hek iakin gabe, gelditu izan zen Yerusalemen. Ia, egun baten bidea egiña zuten, eskaz zutela abiasatu zirenean.

Zer xangriñetan eskaz hark etzituen eman izatu? beregainki Mariak zenbat etzuen kalte hura sentitu behar izatu?

Ordean, o ene salbatzaillea, Mariak ez zintuen bere faltaz galdu, gerizatu ziñaizkon zure Aita zerukoaren intreza gatik.

Nitaz denaz bezanbatean, hanbat aldiz nere gaixtakeriez ekharri zaitudan ondoan ni ganik urruntzerat; asko senti ahal othe dezaket bada,

zure galtzeaz eta tu ganik urrundua izateaz, neretzat den zorigaitza?

Mariak Jesus ezkalstu zitzaioenean, etzuen galdu haren adiskidetasuna: eta nik galdu dut haren grazia, lurreko gauza guziak baño baliosagoa.

Jesus baño gehiago maitatu ditudan munduak eta haren plazerek, othe dute bada deuse-re egin dudan galtzearen ordainzat niri emateko?

Dohatsuak dire bethi Jesusez gozatu direnak, hura behinere bere ganik urrunarazi ez dutenak; hek bakharrik dakite, eta erran dezakete, zer den lurreko Parabisua.

Jesusekin izate, o konpania gozo eta maitagarriya! o slhaz loriagarriyak! o adiskidetasun samurra, eta kontentamendu Jinkozkoa.

Bañan Jesus ganik urrundua izatea, zer bakhartasun latzgarri! zer gau ilhun! zer erromezkeria izigarri.

Ah! Jesus galdu duenak, ezagut baleza bere zorigaitza; berriz haren kausitzeko eman letzake munduko ontasun guziak, ohore guziak, atsegin guziak.

Denborako kalte bat dugunean nigar egiten dugun, ezin konsola gaitezke, eta ez dugu nigar egiñen Jinkoa galdu ondoan, sentimendu gabe izanen gare! Othe daiteke bada kristau batenzat kalte doloragarriyagorik?

Ez ez da gizonik bere ontasuna pena gabe galtzen duenik. Zu o ene Jinkoa! ontasun infinitu eta soberanoa, zu gizonek galtzen zaituzte kalte hortaz kantituak izan gabe! o nonbait guti eza-gutzen zaituzte.

Espos bat sentimendugabea ez izateo, des-kansuan othe lauke espos samurrena galdu ondoan? ume batek ez othe luke damurik buraso hoberenaz gabetu litekenean?

Miserikordien Aita, zure adiskitasuna bihur diozozu zure umeari. Gure arimen espos dibinoa zure amodioa bihur diozozu ene arimari.

Ene nigarrez ukitua izan zaite. Marraskaz nago, zern ezagutzen baitut galdu dudan guzia.

Nere burubaz izitzen naiz, orhoitzen naize-nean merezitu dudala zure galtzea: bai zure gal-tza, hanbat moldez ezagutarazi darotazun ondo-an neretzat zinduen amodioa, ni zure hurbillean ikusteaz zinduen atsegiña.

Tipiegia da ene bihotza ene eskergabetasuna behar den bezala abhorritzeko. Ez gizon guzien bihotzak baterat bildurik ez ditezke asko, ene gaixtakeriak merezi duten moldean higuintzeko.

Ingrat guzietarik handiena naizen bezala, zure miserikordia handienetarat hel egiten dut, hark urrikiaren partetik eskaz dudan, eta izan nahi nuke guzia betheko du.

Nahi nuke ene urrikia balitz argitzen naben fedearen berdin, irakasten darotanean bekhatuarenzat izan behar dudan herra infinitua; et zuretzat izan behar dudan amodio neurrigabea.

Ene moldien itsuskeria guzia sentitzen dut, eta ez nezake hala senti, samurtasun gutiago bazindu neretzat.

Helas! ene eskergabetasun guziak ezin unhatu du zure pazientzia, iduriki nauzu harritzen naben; eta ezin sekulan asko ezagutuko dudan ontasun batekin.

Zure begietan naizen estatu doloragarrian, zer esparanzatzeko arrosain duket; zure ontasuneari berean edireten ez badut? Jesus ene Salbantzaillea, zure adiskidetasuna bihurtzen darotazularik, ezagutaraz zazu norarañokoan dohaken.

Badakit merezi ditudala zure iustiziaren kolpe dorphenak, ah! iasar diezadazu, ordean eman nazazu zure bihotzan lehen ninzen oin beran.

Nahi dut gora dietzakidatzun munduarekin amarra ahal nazaketen guziak, ontasunak, oho-reak, erreputazionea, gizonen estimua eta adiskidetasuna: ordean ez dezazula behinere onets, izan dezadan zure galtzeko zorigaitza.

Oxala bada hemendik harat errepara dezadan ene amodioaren kharraz eta leialtasunaz zuzanik hastandua iragan dudan denbora.

Oraño beraz, o Jesus! besoak heda dietzakidatzu, zure bihotza bethi berbera da: ene errebelamenduen despit, bethi ene errezibitzeko zabaldua.

XV. KAPITULUA

Nola, eta non behar den Jesus bilhatu, haren galtzeko zorigaitza izan ondoan

Etzen Maria hain laster abisatu Jesus eskaz zuela, non lehiyarekin bilhatu baitzuen; berehala bere hurkoen artean, ondoan Yerusalemen, eta izan zuen hura han aurkitzeko zoriona.

Seme guziz maite haren ikusteaz izan zuen bozkariora, haren eskasak eman zioen griña eta kexagunearen berdiña izatu zen.

Jesus galdu duzu o ene arima! Ama samur haren lehiya imitazazu. Hark bezala guziak utz zatzu haren edireteko.

Zure plañu eta nigarrez galde diozozute krea-tura guziei, zeruari eta lurrari, argiari eta gabaz-ko ilhunbei.

Maiz Jesus billatzen da, hura ediren gabe, zerdn ez baita behar den bezala bilhatzen: iduri

ere du hura bilhatzeko moldean, damu ginduke-
la haren kausitzeaz.

Haren bilhatzeko agertuko duzun pruntasu-
nak, eta haren aurkitzeko erakusiko duzun lehi-
yak, behar dute haren galtzeaz duzun damuaren
froga batzu izan.

Non ordean hura edirenen duzu? munduaren
artean othe? Jesus haren etsai ezagutua da. Ez
dezazula uste izan haragiak eta odolak haren
edireten lagunduren zaituztela; mariak etzuen
aurkitu bere ahaidien eta ezagutzako yendien
artean.

Ebanyelioaren oraklei, sainduei, Yaunaren
ministrei galde diozozute; erranen darotzute non
edireten den: Jesus aurkituko duzu Mariak ediren
zuen lekhan. Tenpluan, othoitzetako etxean,
errelijioneko exerzizioetan, haren ministroen eta
zerbitzarien konpañian.

Hura orño edirenen duzu bakhartasunean,
eta guzien gañetik bihotzaren bakhartasunean;
erran nahi da Pasionien ixiltasunean.

Berak harat gonbidatzen zaitu, haren boza,
eta haren ahotik atherako diren biziaren hitzak
han enzuteko.

Han billatu izan dute eta oraño ere bilhatzen dute haren ganat zin ziñez hurbildu nahi dute-nek; nahiz baren ganik urrundu daitezken, edo bizitze gaixto baten errebelamenduez, edo nahikarako barraiamendu edo errelaxamendu batez.

Ediren dukezun ondoan o ene arima! nolako bakhe gozoa ez duzu gustatuko! ez Jesus ganik urrun, ezin goza gaitzke zenbait zorionez.

Jesus kausitu duenak, laster bere esperienziak, konprenitzen du trezor handi hark pena balio zuela haren ondoan ibiltzeko.

XVI. KAPITULUA

Zer behar den egin, Jesus ediren ondoan

ZERBITZARIAK

Jesus aurkitu duzu beraz, o Maria! zurekin badaramazu Nazaretherat. Aingeruak berak zure zorionaren ielos dire.

Nonbeit atenzione handiarekin atzarriya izateraz zoaz seme preziatu horren gañean? zer griña eta artha ez ditutzu izanen haren biziaz?

MARIAK

Ene haurra, egia diozu, zorion handi bat da Jesus ediren izatea: eta deusere ez da haredn gozamenaz seguraturia izateko egin behar ez denik.

ZERBITZARIAK

Birjina Saindua, zeronek othoi irakats diezadazu, zer behar dudan egin ontasun guzizko hartaz ez gehiago nere burua gabetua ikusteko.

MARIAK

Ene haurra, artharekin examina zazu zerk Jesus ganik urrundu duen; eta nola ethorri zaren haren grazia galtzerañokoan, eta hura etsaitzat izaterañokoan.

Ez othe zare bada hasi izatu haren zerbitzuan laxatzen, eta hura zured alderat hostu duten hanitz neglijenziez hobendun billakatzen?

Ez othe duzu zure baitan mañaztatu zenbait pasione perillos; zure bihotzean pixten zituen lehen inharrak, abisatu zaren bezain laster, hil behar bidean?

Jinkoak galdetu darotzunean zenbait kreaturen alderat zinduen amodio eta lehia sobratu baten sakrifizioa, eta othe diozu hura errefusatu?

Ezagutzen baduzu arrozoin horietarik edo batak eta bertzeak Jesus zu ganik hastandu dutela: zoaz berehala gaitzaren erhorat: pikha zazu sur bihotza aldazken hil arazteko.

Lehen zure buruari ekhartzen ziñoen atenzio-nea dobla zazu. Ahal bezain artha handienarekin begira zazu zure bihotza.

Ezin bihotza dañatua izan daite hirrisku gabe. Bihotzaren konserbazioneari, da iratxakia arimaren biziaren konserbazioea.

Izan zaite gauza mendrenetan leial, han ditan infidel billaka zaitezten beldurrez. Huts ariñez egiten den arbuioak, baratxe baratxe erorko handienetarat darama.

Jesusek ez du nahi partaiatua den bihotz bat. Beretzat oso osoa egin du zure bihotza, berak nahi du baxharrik haren iabe izan.

Ene haurra, zuk, eta arima laxoek hain errexki zuen buruei barkhatzen diotzotzuen huts arin hek, sentitu gabe Jesus zuen ganik urruntzen dute.

Huts hek ez zaituzte haren etsai egiten, bañan hartarat preparatzen zaituzte. Begiratzen diote hotztasunaren marka batzuei bezala, eta hotztasun hark gutitzen du haren grazien nonbra.

Leialtasunak gozatzen eta hazten du Jesusen bihotzaren eta presuna iustuaren bihotzaren arteko komertzio samurra.

Izan zaite Jesusen alderat, nola nahi baitzinduke hura zure alderat izan liteken. Nahi zinduzte

ke zure gañerat heda letzaken bere amodiaren aberatstasun guziak; zabal diozozu zuk ere zure bihotz guzia.

Haren alderako laburtasunek, bihotz hertsia, hertsia bat agertzen dut. lelosia suerte bat ematen dio, hartaz landan bertze norbaitenzat aldaratzena den amodioak.

Maite den presuna baten ganik heldu den hitz mendrena onhesten da. Leialtasunezko eta amodiozko dispozizione berarkin errezibi zatzu Jesusen inspirazioneak, nahiz bere graziaz ekhar zaitzan bekhatuari ihes egiterat, nahiz berthutean ainziñatzerat.

ZERBITZARIAK

Zer diren amodioa eta leialtasuna hain perfektiki ezagutu duzun Birjina Saindua, esparantza dut neretzat galdetuko duzun Jesusen graziaz lagundua naizelarik, baliatuko naizela zure lezio-
ne onez.

Ez dezazula ordean gaitzetz Birjina Saindua erran diezazudan ene beldurretarik bat. Naizen bezala herbala, helas! ez othe dut oraño izanen

Jesus galtzeko, eta behin behikotzat galtzeko zorigaitza?

MARIAK

Ene haurra, onda beldur izan zaitezen; eta beldurtasun hori ez bazindu, neronek inspira nie-zazuke. Ez zaitu guziarekin kexatu eta nahasi behar: kontrarat esparantzaz konpañiatua behar du izan.

Zure partetik ahal guziak egitzu Jesusen amodioan irauteko, eta haren samurtasunetik idurik zazu perserberanziaren grazia.

ZERBITZARIAK

Ai bada, o ene Ama ona, ungi tristagarri da perserbera ez dezan bizen bertze beldurrik ez duen arima batenzat, ez iakitea ea iraunen duen, ala ez.

MARIAK

Ene haurra, duda hortan bizi behar dute lurraren gañean diren guziak; hala Jinkoak nahi izatu du, presonpzione edo esparantza sobratu batetan eror etzaitezenezat.

Duda hark behar zaitu humiltasunean iduki, eta zure salbamendua behar darotzu eragin ikhara eta beldurtasunekin. Zerurat gaten zartzen, ez duzu gehiago beldurrik izanen; eta gozaturen zare bethi Jesusekin izateko segurantzaz dohatsuaz.

XVII. KAPITULUA

Arima iustuak ez duela behar gogurritu idortasunetan; eta Jesus haren ganik urruntzen dela iduritzen zaioenean

Batzutan Jinkoak iustuen alderat idukitzen du, hek alarmatzen eta nahasten dituen konduita bat. Nola nahi baitu heien leialtasuna frogan eman, denbora batekotz gerizatzen bezala zaie.

Molde hortan Jesusek egin izan zuen bere Ama Sainduaren alderat. Ikusi zuen harekin ez izateak egiñen zioen damua: guziarekin haren ixillik tenpluan egon zen.

Arima kristaba, samurtasuna bera den Jinko hark nahi bazaitu manera berean frogatu; ez zaitzela izi ez nahas: izan zazu animo, pazienziarekin idurik zazu bihur dakizun.

Bethi zu ganik hurbil den arren, galdetuko duzunean zuri bere laguntzaren emateko; on da zu ganik urruntzen balitz bezala egin dezan:

iaikin dezazunzat zenbat zintezken dohakabe, hura alde bat galtzen bazindu.

Arima bat bere konsolamenduez fagoratzen duenean, bere penetan haren sustengatzeko, hori egiten du. Eta gero ikusten duenean harenzat duen ontasunaren ariaz suphertasun batetan eror ahal daitekela, usten du agortasunerat eta desolamendu baterat erortzerat.

Jinkoaren adiskide guziek edo bederen gehienek aldizka frogatu dituzte batean bozkarioa, bertzean tristezia: orai deboziona, gero desgustuak, batean deskansua, bertzean tentamenduak.

Iduri zuenean Jesus heien ganik urruntzen zela, eta erran behar bada bere menerat uzten zituela, orduan ezagutzen zutedn bere herbaltasun guzia; ez zuten ordean gogoa galtzen, zeren baitzakiten haren prezencia bethi ageria ez izan arren, ez zirela gutiago haren laguntzaz seguruak.

Bazakiten Jinkoak ainzinetik ikusi dituela pairatzen ditugun gaitzak; eta beraz preparatu darozkigula hetarik probetxu tiratzeko moienak.

Haren graziak bere gozotasunez eta konsolamenduez borthitzten zintuenean, errexki eta zure plazererat ziñabilzan: ez dezazula ordean uste izan orduan lasterrenik ainziñat ziñoazela.

Gehiago berthutearen bidean irabazi duzu; idortasunez frogatua izan ondoan, pazienziarekin, humiltasunekin, eta obedienziarekin iasan duzunean estatu hura; zeñetan iduri baitu ez duela Jinkoak zutaz konturik egiten.

Egia da, estatu hura tristagarria da, zeren bethi beldurtzen baitugu froga bat baño hobegki dela punimendu bat.

Guziarekin, arima kristaba, hartan edireten zarenean, animoa galtzetik urrun, bethi ezparantzaz izan zazu laster ikusiren duzula zure maite-maitea lehenago bezain maitagarria, eta frogaz ez dela zuretzat Mariarenzat baño luzeagoa izanen.

Ordean imita zazu Ama saindu hark bere semearen aurkitzeko erakutsi zuen lehia: hark bezala bilha zazu desirkunde eta kexamendu saindu batekin.

Ez dezazula ordean murmuranzarik egin: Jesusek ez darotzu deusere zor: edo zenbait

errenkura egiten baduzu, izan dadin Mariarena bezala amodiozko errenkura bat.

Ene semea, erran izatu zioen zeren gatik utzi gaitutzu. Zu galtzeaz desolamendu handiengan giñen.

Orobat, erran diozozu, o ene Jesus zertako ene bihotza eman duzu froga garratz hortan! badakizu zer min den nretzat, zu ganik absent izatea.

Ene partetikako zenbait leialtasun eskasek ekharri othe zaitu bada molde hortan ni ganik urruntzerat?

Barkha diezadazu Yauna, zure gogara ez egiñik merezitua dut urruntasun hura. Hemendik harat erneago egonen naiz, zuri damu egin diezazuketen guziei ihes egiteko.

Ordean nola nahikoa izan dadin zuk ene alde-
rat idukitzen duzun konduitarean arrosoña, nahi dut frogatua izan plazer duzun moldean, eta plazer duzun bezanbat denboraz, bethi ene biho-
tzean zure amodioa dudalarik.

XVIII. KAPITULUA

Bizi gordeaz

ZERBITZARIAK

Birjina Saindua, othoi argi nazazu Nazarethe-ko hirian ziñaraman bizi ilhun eta gorde haren misterioaren gañean. Kanporat atherarik, ez ziñotzan bada Jesusi bihotz gehiago irabaziko, eta errespetu gehiago izanaraziko?

MARIAK

Ene haurra, ohore bat zitzaitan hanitz denboraz, lurraren gañean Jinko gorde bat izan nahi zuen Jesus beraren arabera egitea.

Mundu huntarat ethorri zen bere doktrinaz gizonei irakasteko humil izaten. Nazarethen zaraman bizitze gordeaz etsenplua ematen zaren.

Aita zerukoak ohoratua izan nahi zuen Jesusen bizitze ilhunaz: eta Jesusek, obra ahal zetzaken mirakulluen gañetik preferenzia eman zioen ilhuntasun hari.

Molde hortan irakatsidu, gizon gehienen perfektionea eta merezimendua ez datzala, Jinkoarenz at gauza handien egitean; bañan bai, haren nahia hala denaz geroz, esku lanetan eta munduaren arabera aphalenak diren enplegutuan okupatzean.

Gisa hortan nahi izatu diote gizonei konpreniarazi zein opinione falsoa zuten saindutasunaz; berthute distiantekin agertzen denean baizen estimatzen ez dutenean.

Bañan guzien gañetik kondemnatzen du, gizon gehienek estimatuak, laudatuak, ohortatuak izateko duten gutizia; eta agertzeko erakusten duten lehia biziakia.

Ene haurra, onets zazu gordea, iñoratu, ahantzia izatea. Jinkoaren laudamendua balin baduzu, zer kontu behar duzu egin gizonenaz? mundua iragaten da, eta guziak harekin batean badozaz.

Nazarethen Jesusez gozaten nintzen. Banuen haren amodioa, hark oro bat nerean bazuen. Zer behar da gehiago, dohatsu izateko?

Erregien iauregi guziak baño gehiago behar zinduke prezatu lur xokotto bat, han bizi ahal

bazintez osoki iñoratua zure gurutzefikaz landan bertze ontasunik izan gabe.

Han ediren ziñezake nigar gozoenen ithurria, bethi geroago eta gehiago zure gaixtakerietarik zure buruaren garbitzeko.

Han oraño Jesusekin famillerkiago bat egiten zintezkellarik, haren amodioan ediren ziñezake zeruko bozkarioen hirrits bat.

Tristagarriegia zaitzu bizitze gorde bat, zeren ez baititutzu behinere gustatu haren gozotasunak.

Hasi baziñe heien gustatzen, aurki ziñezake munduko ohorak eta plazerak ungi funtsgabeak direla, are funtsgabeagoak oraño, heien ondoan badiltzanak.

Egia da, halako bizitze batetan behar direla maiz iasan mundutarren trufak; trufa hek berak ordean probetxu handitakoak dire, zeren hertsikiago oraño amarratzen baitute baxharrik billatzen den Jesusekin.

Ene haurra, gizonen artean gutiak dire deskasuan bizi dirnak; gutiak bere buruekin laket zaienak; zeren gutiak baitire balsa handitik

aphartatzea maite dutenak, baxharrik Jesusekin egoteko.

Badire ere, bere buruak debotzat dauzkate-nak berthute funtsezko bat izan gabe; zeren kanporat sobra barraiatzen baitire, eta sobra maite baitute bere buruben agertzea.

Hanak hitzez dire debotak. Errexago da debozioneaz minzatzea, hura pratikan ematea baño.

Ez da grazia hanitz denboraz egoten, arima haisatu eta zeruko esposarnez landan bertzen begiratzeak billatzen dituen baten baitan.

Jesusi galde diozozu Sainduei eman izan dioztoten argi bizi hetarik bat; zeñaren bidez ezagutu baitute Jesus Kristorekin Jinkoa baitan gordea den bizitze baten zoriona.

BIGARREN LIBURUAREN AKABANTZA